

HIZNET 2017/2018



SAKONTZE EGITASMOA

EUSLIDERRAK ETA GERO ZER?

EusLiderrak saioen ebaluazioa

Maialen Begiristain Grado
Tutorea: Iñaki Martinez de Luna

Eskerrik asko Iñakiri lan honetan gidatzeagatik, Ahize-AEK eta Zadorra AEK-ko lankideei eta nola ez, azken urte honetan hizkuntzen inguruan nirekin

hausnartu duten guztiei.

Aurkibidea

1. **Laburpena**
2. **Sarrera**
3. **Hurbilpena**
 - 3.1. **Zer da eusLiderrak?**
 - 3.2. **Zein ikastetxetan eman da?**
 - 3.3. **EusLiderrak eta hizkuntzaren erabilerarako baldintzak**
4. **Metodologia eta teknika**
 - 4.1. **Ebaluaziorako irizpideak**
 - 4.2. **Galdetegiak / elkarrizketak**
5. **Informazio enpirikoa**
 - 5.1. **Landa lana**
 - 5.2. **Laginak**
 - 5.3. **Emaitzak**
6. **Ondorioak, hausnarketa eta proposamenak**
7. **Eranskinak**
8. **Bibliografia**

EusLiderrak eta gero zer?

1) Laburpena

Lan honetan eusLiderrak, hizkuntza portaera berriak sortzeko tailerraren ebaluazio bat aurkituko duzu. Ebaluazio hau saioak jaso dituzten gazteak erdigunean jarrita egindako lana da, beraiekin egindako elkarrizketen bidez jasotako informazioan oinarritutako lana beraz.

Bertan saioen helburuak bete diren aztertuko dut, gainera, saio hauen eragina zein den eta denboran irauten duen aztertuko dut. Honen ondorioak ateraz, aurrera begirako proposamen bat aurkituko duzu lanean, baita gazteen ikuspuntutik egindako zenbait proposamen ere.

2) Sarrera

“EusLiderrak ta gero zer?” izendatu dudan sakontze egitasmo honen bitartez eusLiderrak saioen ebaluazioa egitea dut helburu. Beraz, lan honetan saioen eragina aztertuko dut, saioek zer-nolako eragina duten eta eragiten duten horretan azpimarratzekorik dagoen aztertuz. Horretarako, eusLiderrak saioen helburuak izango ditut abiapuntu. Hiru dira saio hauen helburu nagusiak.

- Batetik, hizkuntzekiko jarrerak lantzen dituzte, horretarako hizkuntzen garrantziari buruzko informazioa esanguratsua emanez.
- Bestetik, hizkuntza-lidergoa eta talde-lana indartzea dute helburu.
- Azkenik, saio hauek eraldaketa sustatu nahi dute eta portaera berriak sortu nahi dituzte.

Ebaluazio hau hiru eperen gainean egingo dut, honen eragina denboran

neurtzeko. Batetik, tailerra jaso berritan honek duen eragina aztertuko dut; bestetik, ikastaroa 2017ko urrian jaso zutenengan izan duen eragina; eta azkenik, ikastaroa 2016/2017.ikasturtean jaso zutenengan izan duen eragina.

Hiru epe horietan hiru helburuak ebaluatu nahi ditut, baina hizkuntza-lidergoa eta talde-lana indartzeko helburua bi aldagai bereziren menpe egongo da.

Hizkuntza-lidergoaren helburuari helduz, berau ebaluatzeko, saioa aurreko ikasturtean jaso izana baldintza garrantzitsua izango da. Izan ere, ikasturte batean saioa jaso dutenen artean eusLiderrak identifikatu eta hurrengo urtean emaile arituko diren boluntarioen zerrenda jasotzen da. Gerora, hurrengo ikasturtean DBH 4.mailako ikasle boluntarioak dira formatu eta eusLider saioetan emaile arituko direnak. Honen bidez, hizkuntza lidergoa indartzea da asmoa. Horregatik hizkuntza-lidergoaren indartzea eusLiderrak saioa 2016/2017.ikasturtean jaso zutenengan aztertzeak garrantzia izango du eta aukeratutako ikastetxeetan, emaile aritutako ikasle bana elkarrizketatuko dut. Hala ere, gerta liteke hizkuntza-lidergoaren zantzuak beste kasuetan ere aurkitzea.

Honekin batera, talde-lana indartzea ere aipatzen da, horretarako, ekintza soziala une garrantzitsua da. Ekintza sozialean parte-hartzaileak eragile aktibo izango dira eta sormena izango da gako nagusia, egingarria den eta ahal dela, aurretik egin ez den zerbait egingo dute. Honek, talde bezala gehiago batuko ditu eta ekintza bat euskaraz burutzea ahalbidetuko du.

Beraz, hizkuntza-lidergoa ebaluatzeko, 2016/2017.ikasturtea izango da giltzarri, ikasleek emaile aritzeko aukera izan dezaten. Ekintza sozialari

dagokionean, 2016/2017. ikasturtearekin batera 2017ko urria izango da giltzarria. 2018. urtean saioak jaso dituztenen artean, gerta liteke batzuk ekintza soziala prestatzen aritzea edo oraindik hasi gabe egotea.

Hori guztia egiteko, saioa jaso duten DBHko ikasleak izango dira protagonista, beraiei emango diet hitza, euren bizipen, inpresio eta balorazioak aipa ditzaten. Izan ere, beraiek jaso dituzte saio hauek, beraientzako prestatuak izan dira eta beraien eragiteko prestatuak. Uste dut, inork baino hobeto erantzun ditzaketela galderak, eta fokua beraien jartzea garrantzitsua dela.

Horrez gain, eusLiderrak saioen oinarrian, pertsonak erdigunean jarri eta taldearen eragina gure alde erabiltzeko lana egiten da. Horregatik, ikasleak protagonista izanez pertsonak erdigunean jartzen jarraituko dut, eta era berean, taldeko kide diren heinean, taldearen eragina ere ikusteko aukera izango dut.

Gainera, kontuan izan behar dugu, oro har, pertsonen gain, hau da, norbanakoen gain uzten dela euskaraz hitz egitearen zama. Horrek, maila mikro-sozialari eta makro-sozialari ardura kentzen die. Garrantzitsua da azpimarratzea euskararen erabilera ez dela norbanakoaren gain soilik dagoen ardura bat, maila makro eta mikro-sozialak ere badutela horren ardura. Horren kontziente izateak, gazteei ardura arindu eta euskararen alde bere alea gehitzea dakarkiela uste dut. Horregatik ere, beraiek beraien bizipen eta esperientziak kontatzea garrantzitsua dela uste dut.

Gauzak horrela, eusLiderrak saioen nondik norakoak azaltzen hasi dut lana, eusLiderrak zer den, zein ikastetxetan eman den eta zein emaitza jaso diren aztertuz.

Ondoren, ebaluazioa egiteko aukeratu dudana metodologia, metodologia kualitatiboa azaldu dut; aukeratutako teknikekin batera.

Galdetegiek emandako emaitzak aztertuko ditut jarraian. Azkenik, ondorioak, hausnarketak eta proposamenak plazaratuko ditut.

3) **Hurbilpena**

3.1. **Zer da eusLiderrak?**

2008an Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzak hasi zuen proiektua da eusLiderrak, eta hizkuntza-portaera berriak sortzeko tailerra da.

Hartzaile desberdinak izan baditzake ere, enpresa, talde edota ikasleak kasu; lan honetan DBH-ko ikasleei zuzendutako saioek hartuko dute protagonismoa eta saio horiek dira ebaluatuko ditudanak.

DBH 3.mailako ikasleei eskaintzen zaizkien saio hauetan, informazio, tresna eta ereduak ematen zaizkie. Hauen bidez, saioen helburua ekintza bat euskaraz burutzea da. Honekin batera, euskaraz hitz egiteko lotsak, beldurrak edota aurreiritziak gainditzea ere izango dira helburu.

Ekintza hori burutu eta aldaketa lortuz gero, *"...emozionalki esanguratsua bada, arrakalatu egingo du orain arteko sistema, eta, ondorioz, pentsamendua berregituratu beharra ekarriko du."*¹ Horrelako aldaketa txiki batek, aldaketa gehiago ekarriko ditu, eta aldaketa horiek gero eta gehiago, orduan eta iraunkorragoak izango dira.

Beraz, euskaraz burutuko duten ekintza dute helburu eusLiderrak

1 EusLiderrak. Hizkuntza portaera berriak sortzeko tailerra. Iratxe Garmendia eta Mikel Urdangarin.

saioek, baina honek berekin beste hiru helburu dakartza.

Batetik, *hizkuntzen garrantziari buruzko informazio esanguratsua eman eta hizkuntzekiko jarrerak lantzeko helburua* du.

Bestetik, *hizkuntza-lidergoa eta talde-lana indartzea*.

Azkenik, *eraldaketa sustatu eta portaera berriak sortzea*.

Helburu horiek lortzeko, gizarte-psikologian erabiltzen diren teknika batzuetan oinarritzen da eusLiderrak. Hiru oinarri teoriko-metodologiko nagusi ditu:

1. Terapia labur estrategikoa (TLE). EusLiderrak saioen oinarri filosofikoa da hau, teknika eta estrategia errazak garatuz portaeretan aldaketa lasterrak eragin daitezkeela baieztatzen duena.
2. PRECEDEDE. Portaera osasungarriak nola sustatu erabakitzeko lagungarria den metodoa dugu hau.
3. Pertsuasioaren 6 arau nagusiak eta marketin-teknikak. Horretarako, Robert B. Cialdiniren *Influence* dugu erreferentzia nagusi.

3.2. Zein ikastetxetan eman da?

EusLiderrak saioak hainbat ikastetxetan eman dira Araban eta Bizkaian.

Araban, Badaia BHI Langraizko ikastetxea eta Aresketa Amurrioko ikastola izan dira saioak jaso dituztenak.

Bizkaian aldiz, Arratia BHI Igorren, Berriz BHI Berrizen, Eguzkiberri ikastola Galdakaon; Ballonti BHI, Zunzunegi BHI eta Santa Maria ikastetxea Portugaleten eta Gernika BHI Gernikan.

Igorre, Berriz, Langraiz, Galdakao eta Portugalete izan dira saioak 2016/2017 ikasturtean jaso zituztenak. Horietatik, Igorre eta Portugaleteko ikasleak elkarrizketatu ditut lehen ebaluazio epe honetako

laginak jasotzeko.

Bigarren ebaluazio epean, 2017ko urria-abendua bitartean Igorre, Gernika, Galdakao eta Portugaletek jaso zuten. Ebaluazio epe honetako laginak jasotzeko Igorre eta Portugaleteko ikastetxeetara jo dut.

Azkenik, hirugarren ebaluazio epean, 2018. urtean Portugaleten, Berrizen, Langraizen eta Amurrion eman ziren saioak. 2018 urtean saioa jaso duten ikasleen laginak jasotzeko Berriz eta Langraizera jo dut.

3.3. **EusLiderrak eta hizkuntzaren erabilerarako baldintzak**

Saio hauen ebaluazioaren marko teorikoan hizkuntzaren erabilerarako baldintzak izango ditut ardatz. Atal honetan beraz, hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktoreak jasoko ditut. Gehiago sakontzea beharrezkoa bada ere, lan honetan dena jasotzea ezinezkoa dela eta, oinarrizko kontzeptu batzuk aipatuko ditut.

Saio hauek hizkuntza portaera berriak sortzeko saioak diren heinean, ezinbestekoa zait erabileraz hitz egitea eta erabileraz hitz egiteko ezinbestekoa Iñaki Martinez de Lunaren *6.1. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak (Hiznet 2016/2017)* ikasgaira jotzea. Gurea bezalako egoera elebidun batean hizkuntza erabiltzeko baldintzak hiru mailatan sailkatzen ditu Martinez de Lunak. Izan ere, hizkuntzaren erabilera ez da kontu indibiduala, mundu txiki baten modukoa da. Bat eta osoa dirudien arren, dimentsio desberdinak bereizten dira eta horrela bereizten ditu aipatu autoreak ere. Maila indibiduala edo norbanako maila dugu batetik eta maila sozialak bestetik, maila mikrosoziala eta maila makrosoziala.



Hiru maila horiek ez dute bakoitzak bere bidea egiten, elkarri eragiten diote. Horregatik, hizkuntza erabileran eragin nahi badugu, hiru dimentsioetan egin behar dugu lan.

EusLiderrak saioen kasuan, horietako bi dimentsiotan eragiten saiatzen dira. Batetik, norbanako mailan eragitea bilatzen dute horretarako hizkuntzekiko jarrerak lantzea eta eraldaketa eta portaera berriak sortzea dute helburu. Bestetik, maila mikrosozialean eragiten dute, izan ere, hizkuntza lidergoa eta talde-lana indartzea dute helburu.

Kontzeptu hauek hobeto argitzeko, hiru dimentsioen inguruko zertzelada batzuk aipatuko ditut jarraian.

Gizartearen maila makrosoziala. Hiru osagaiei erreparatzen diete Martinez de Luna, Suberbiola eta Basurtok dimentsio honetan: gizartearen babesari, estatus juridikoari eta hizkuntza politikari.

Hizkuntza batek bizirik iraun dezan guztiz beharrezkoa da **gizartearen babesa**. Erakundeez gain, gizarteari eta hiztun komunitateari eragiten

dion osagaia da hau. Gizartean nagusi den hizkuntzaren inguruko diskurtsoak eragingo du gizartean hizkuntzekiko jarrera batzuk ala besteak izatea, eta honek beraz hizkuntzarekiko babesaren izatea edo ez izatea.

Gizartearen babesarekin batera **hizkuntzaren estatus juridikoa eta hizkuntza politika** aurkituko ditugu. Hala ere, hauek ez dute zertan gizartearen babesarekin bat etorri, historiak urteetan erakutsi digun moduan. Urteetan zehar euskararen kontrako hizkuntza politikak garatu badituzte ere, gizartearen babesaren zuen hizkuntzak eta maila mikrosozialean zein norbanako mailan aldeko jarrera aurkitzen genuen. Horrela egin ahal izan du euskarak aurrera. Egoera desberdinak bizi izan baditugu ere, komenigarria da osagai honi erreparatu eta hizkuntza politika egokiak garatzea.

Gizartearen dimentsio mikro-soziala. Dimentsio mikro-sozialean Joshua Fishmanek (Fishman, 1979) definitutako *egoera* dugu. *Egoera* hori egunerokoan ditugun harreman-sareetan aurkitzen dugu. Harreman-sareek hiru baldintza bete behar dituzte hizkuntza erabilera gerta dadin: solaskideen ageriko hizkuntza-gaitasuna, harremanen trinkotasuna eta hiztunak hizkuntza-hautua egiteko ahalmena izatea. Ikus ditzagun baldintza hauek banan banan.

Ohikoa da gurean, **solaskidearen ageriko gaitasuna**, hau da, euskaraz aritzeko gaitasuna, ezagutu ezean gaztelaniara jotzea. Beraz, dimentsio mikro-sozialean, gure harreman-sareetan euskararen erabilera eman dadin bete beharreko baldintza da solaskidearen ageriko gaitasuna ezagutzea. Gaitasuna agerikoa ez denean, nor bere aurreiritzi eta usteak alde batera utzi eta gaitasun hori zein den ezagutzeko bidea egitea garrantzitsua izango da, lehenengo hitza euskaraz eginez adibidez.

Hizkuntzaren erabilera gertatzeko bigarren baldintza **harremanen trinkotasuna** dugu. Hitzunen arteko harremanak trinkotuta egoteak, hizkuntza hori gehiago erabiltzea erraztuko du eremu gehiagotan.

Gurean bezala, bi hizkuntza edo gehiago ukipenean bizi direnean, *egoera* horietan hobesten den hizkuntzak ez du zertan hizkuntza-hautua izan behar, egoera sozialek ezarri ohi duten hizkuntza erabiltzea suerta daiteke. Horregatik, hizkuntzaren erabilera gertatzeko **hizkuntza-hautua egiteko ahalmena** dugu hirugarren baldintza. Izan ere, hizkuntza-hautua botere-harremanen arabera izan ohi da.

Norbanakoaren dimentsioa. Norbanakoaren dimentsioa da aurkituko dugun azken dimentsioa, eta bi osagai nagusi bereizten dituzte Martinez de Luna, Suberbiola eta Basurtok; gaitasun erlatiboa eta motibazioa. Bietako nahiko behar du hiztun batek hizkuntza gutxitu baten aldeko hautua egin ahal izateko. Hala ere, ezin dugu ahaztu hizkuntza bat erabiltzeko hautua ez dela norbanakoaren kontua soilik, lehen aipatu bezala maila makro-sozialean zein mikro-sozialean ere aldeko baldintzak behar ditugu.

Hizkuntza batean aritzeko beharrezkoa da gutxieneko **gaitasuna** izatea, ez hori bakarrik, ukipen egoeran dauden hizkuntzen kasuan, komenigarria da gaitasun hori ukipen egoeran dauden gainerako hizkuntzetan dugun gaitasunaren parekoa edo hobea izatea. Maila honetan gaitasunarekin zerikusi zuzena duen bigarren osagaia motibazioa dugu.

Motibazioa da hizkuntza gutxituen alde egiteko behar dugun elementua. Askotan, motibazioak gaitasun erlatiboa konpentsa dezake. Motibazio hori desberdina izan daiteke bakoitzaren kasuan, batzuetan kontzientea izango da eta beste batzuetan inkontzientea. Zenbaitetan, lanagatik, bizimoduagatik ... eta beste zenbaitetan emozioengatik gertatuko da

motibazio hori.

Horiek beraz, Iñaki Martinez de Lunaren ikasgaitik ateratako hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktoreak. Kontziente izan behar dugu erabileran eragin nahi badugu, hiru dimentsiotan eragin behar dugula. Lan honetan, aipatu bezala maila mikro-soziala eta maila makro-soziala izango ditugu hizpide, horietan eragin nahi baitute eusLiderrak saioen helburuek.

4) **Metodologia eta teknika**

Metodologia eta teknikak aukeratzekoan zenbait galdera erantzun nizkion nire buruari. Batetik, (1) ea eusLider saioek norengan eta zenbat gazterengan eragiten duten jakitea interesatzen zitzaidan. Eta bestetik, (2) ea saio hauen eragina nola gertatzen ari den eta zergatik gertatzen ari den jakitea interesatzen zitzaidan.

Lehenengo galderari erantzunez, interesgarria deritzot saioek zenbat pertsonengan eragin duten jakiteari, baita norengan eragin duten jakiteari ere. Baina uste dut saio hauek ebaluatzerakoan ez dudala datu kuantitatiboetan zentratu behar, edukiari eta saioen helburuak ebaluatzeari garrantzia handiago ematen diot. Horregatik, lan honen muina datu kualitatiboetan egongo da. Datu kuantitatiboak lortzeko ikastetxeetan erantzuten dituzten galdetegiak daude.

Bigarren galdera erantzun aurretik, ikastaroetan egiten diren galdetegi horiek zein diren argitzeko beharra ikusten dut, bertatik ere lan desberdinak bidera daitezkeelako aurrerantzean. Guztira bost galdetegi erantzuten dituzte ikasleek. Hiru saio bakoitzaren amaieran betetzen dituztenak dira, saiook ebaluatzeko, hiru saio hiru galdetegi. Beste biak, saioak hasi baino lehen eta ondoren erantzuten dituztenak dira. Bertan,

saioen helburuak bete diren ikusteko zenbait galdera egiten zaizkie ikasleei, 1etik 5erako eskalan ebaluatu ditzaten.

Bigarren galderaren erantzuna baiezkoa izan zen ere, hau da, saio hauen eragina nola eta zergatik gertatzen den jakitea da nire helburua, baita eragin honek denboran irauten duen jakitea ere. Horretarako, lan honetan erabiliko dudan metodologia kualitatiboa izango da gehienbat.

4.1. **Ebaluaziorako irizpideak**

Ebaluazioa hasi eta aldagaiak zehazten hasi aurretik, analisiaren erdigunean pertsonak eta haien prozesuak kokatuko nituela erabaki nuen. Kasu honetan, ikasleak dira protagonistak, beraiek jaso dute ikastaroa eta beraiengan jarri ohi da euskararen erabileraren zama. Gainera, eusLiderrak saio hauek ikasleentzako prestatutako saioak izanik, beraien iritzi, bizipen eta inpresioak jasotzea garrantzitsua dela uste dut.

Ezin ahaztu gainera, eusLiderrak saioek hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktoreetan, dimentsio mikro-sozialean eta norbanako mailan eragitea dutela helburu. Horregatik, Martinez de Luna, Suberbiola eta Basurtoren teoria hori oinarri, eta dimentsio horietan eragitea helburu, ikasleak elkarrizketatuko ditut, norbanako moduan eta talde bateko kide diren heinean.

Ebaluazio irizpideak zehazteko, eragina izan zezaketen zenbait aldagai hautatu nituen elkarrizketatuek, gazteek, dituzten ezaugarri nagusiak zein izan zitezkeen kontuan hartuz. Gauzak horrela, hauek izan ziren hautatutako aldagaiak:

- Noiz, ikastaroa noiz jaso zuten

EusLiderrak saioen eragina denbora neurtzeko, saiook hiru epe desberdinetan jaso dituzten ikasleak elkarrizketatuko ditut.

Ikastaroa jaso berri duten ikasleak elkarrizketatuko ditut batetik, 2018.urtean jaso dutenak, hauek urtarrila eta otsaila bitartean jaso dituzte saioak. Hauen kasuan, gerta liteke ekintza soziala oraindik egin gabe izatea edo prestatze fasean egotea. Horrek aukera eman dezake ekintza sozialak talde-lana indartze aldera duen eragina neurtzeko, laginek horretarako aukera ematen badute. Horretarako, ekintza soziala egin dutenen eta egin ez dutenen arteko konparazioa egin beharko dut. Elkarrizketa hauek egiteko, Berriz eta Langraizera joko dut.

Bestetik, ikastaroa 2017. urteko urritik aurrera eta abendura bitarte jaso dutenak elkarrizketatuko ditut. Saioek eragina izan duten eta honek oraindik ere irauten duen aztertuko dut galdetegi hauekin, baita saioen hiru helburuak bete diren ere, eta horretarako Gernika eta Portugaletera joko dut.

Azkenik, eusLiderrak saioak iazko ikasturtean, 2016/2017 ikasturtean jaso zuten ikasleak elkarrizketatuko ditut, Igorre eta Portugaleteko ikastetxeetara joko dut horretarako. Saioek eragina izan duten eta denboran iraun duen aztertzeaz gain, epe honek aukera emango dit hizkuntza-lidergoa bultzatu den ikusteko. Izan ere, iazko ikasturtean saioa hartu zutenen artean, aurten emaile aritu direnak egongo dira, eta horiek ere elkarrizketatuko ditut, hurrengo puntuan azalduko dudan moduan.

- Hurrengo ikasturtean emaile aritzea beste aldagai bat izango

da.

Aurretik aipatu bezala, 2016/2017 ikasturtean saioa jaso zuten ikasleak elkarrizketatzearekin batera, hauen artetik aurten emaile aritu diren ikasleak elkarrizketatuko ditut, ikastetxe bakoitzeko bana.

Proiektu honek hizkuntza-lidergoari ematen dion garrantzia ikusirik, giltzarri izan daiteke ikasturte hau. Hizkuntza-lidergoa indartzeko tekniketako bat ikasleak emaile aritzea izanik, hau da, lidergo katea sortzea; honek eraginik ote duen aztertu nahiko nuke.

- Ingurune soziolinguistikoa

Ingurune soziolinguistiko desberdinetan ikastaroak eragin berdina duen ikusteko, bi ingurune soziolinguistiko desberdin bereizi ditut.

Euskararen erabilera %1-20 artekoa den herriak ditut batetik, multzo honetan Portugalete eta Langraiz.

Bestetik, euskararen erabilera %21-40 artekoa den herriak ditugu, Igorre, Gernika eta Berriz.

Hasiera batean, bereizketa %50ean egin nahi banuen ere, herrietako errealitate soziolinguistikoak beste bereizketa bat egitera eraman nau. Hala ere, eragina desberdina izan daitekeelakoan nago.

Euskaldun bezala, euskararen erabilera %1-20koa den ingurune soziolinguistikoetan, gazteak euskaldun bezala ahalduntzeak garrantzia berezia izango duela uste dut.

- Lehen hizkuntza

Lehen hizkuntza gaztelania edo euskara duten ikusi eta horren arabera ikastaroaren eragina zein den ikusi nahiko nuke ere,

aldagai horrek eraginik ote duen ikusi nahiko nuke.

Hemen, amaren hizkuntza zein den jakinez gero, datu gehiago eta ondorio gehiago ateratzeko aukera izango genuke. Izan ere, hizkuntza fideltasuna amaren hizkuntzarekiko izan ohi dugu egun ere. Aldagai honek lan honetan gehiago sakontzea eskatuko luke ordea.

- Generoa, neska ala mutila.

Zalantzak izan nituen generoa aldagaitzat hartu ala ez erabakitzerakoan. Baina garai hartan egiten ari nintzen "Euskaltzaletasuna eta feminismoa: zer ikasi, hura elikatu"² ikastaroan aldagai garrantzitsua izan zitekeela ikusi nuen. "Euskaltzaletasuna eta feminismoa, ahalduntzeko elkargunea" saioan, Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelek aurkeztutako zenbait ideietan oinarritu nintzen horretarako, bertan "emakumea, ama eta hizkuntza" lotura oraindik ere transmisioari lotuta daudela aipatzen zuten, indar handia dutela. Baieztapen hori hiru adibidetan oinarritzen dute.

Batetik, Teresa del Valleren 1989ko lan bat aipatzen dute, gazteen hizkuntza fideltasunaren inguruan zenbait lan egin direla ere esaten dute. Lan hauetan, gazteen hizkuntza fideltasuna amaren hizkuntzarekiko dela aipatzen da, amak hizkuntza bat edo beste izan, gazte hori fidela izango zaio amaren hizkuntzari gehienbat. Lan honetan horretan sakonduko ez badut ere, aipamen txiki bat egitea interesgarria dela uste dut, aurrera begirako bide berriak irekitze aldera.

Genero ikuspegi batetik, gizarte antolakuntzaren ondorio zuzena da hau, egun oraindik ere, seme-alabak heztearen lana emakumeok egiten baitugu gizonek baino gehiago, ordu gehiago

2. <https://www.youtube.com/watch?v=jc2CmiHKZrQ>

ematen ditugu beraiekin.

Bestetik, Elhuyarren (Oruesagasti, G., Arakistain, J. Eta Otaegi, A.: 2014) ikerketa bat ere aipatzen dute, zeinak neska kuadrillak eta mutil kuadrillak konparatzen dituen. Bertan ikus daiteke nola hizkuntza aldaketen arabera, mutil kuadrillek askoz ere errazago aldatzen duten hizkuntza. Neska kuadrillak aldiz, hizkuntza bat izan edo bestea izan, ez dira hain aldakorrak, sendoagoak dira eta ez dira hainbeste aldatzen.

Honek ere, genero ikuspegitik azalpena dauka. Neskak beti hezi gaituzte eta hezten dituzte zintzo eta arauzaleago izateko. Horren ondorioa da, neska kuadrillak egonkorragoak izatea eta baita itxiagoak ere, generoko beste arrazoi batzuk kontuan hartu gabe, eta egonkorrago izate hori hizkuntzarekin ere gertatzen da. Mutil kuadrillak aldiz, zabalagoak, mobilagoak eta libreagoak dira, eta hizkuntza arauak errazago puskatzen dituzte emakumeek baino.

Azkenik, EAEko (Berrio-Otxoa, K., Hernandez, J.M. eta Martínez, Z: 2003) zenbait datutan oinarrituta neska eta mutilen aisialdi aukerak aipatzen dituzte. Neska askok edo mutilekin alderatuta ehuneko handiagoak, euskaldun kontsideratzen diren gauzetan pasatzen du bere aisialdi, euskal dantza eta antzekoetan adibidez. Mutilek aldiz, kirolean ematen dute bereziki.

Generoagatik ematen den bideraketa bat ikus dezakegu aisialdian ere. Neskak euskal kulturari lotuta dauden gauzetara bideratuta daude, mutilak aldiz, kirol mundura, eta bertan futbolera gehienbat, mundu erdalduna.

Aldagai horiek guztiak konbinatuz, taulak osatu eta ezaugarriak kontuan

izanda elkarrizketatuko nituen gazteen zerrenda osatu nuen. Gerora ikastetxeetara jo nuen ezaugarri horiek guztiak zituzten gazteak elkarrizketatzeko.

4.2. **Galdetegiak**

Hasieratik prestatu nituen iker-galderei erantzungo zien informazioa lortzeko, galdetegi bat sortu nuen. Metodologia kualitatiboan murgilduta, teknikak bilatzeari ekin nion.

Informazio iturria ikastaroa jaso duten gazteek osatzen dutela ikusirik, beraiengana nola jo aztertzen hasi nintzen.

Interesgarria iruditzen zitzaidan galdera irekiak eman eta beraiek beharrezkoa jotzen zuten informazioa ematea, finean horrela ikusiko baitut zeri eman dioten garrantzia, zerk eragin dien...

Banakako elkarrizketak gidatzeko hamaika galderako ondoko galdetegi hau osatu nuen:

- 1) Kontaidazu eusLiderrak saioek zer eman zizuten, sentipenak, ikasitakoa...

Galdera honen bidez, beraien inpresio eta iritzi orokorra jasotzeaz gain zenbait kontu ikusten hasiko naizela uste dut. Besteak beste, neskak eta mutilek gauza berdina azpimarratzen duten, eusLiderrak saioak jaso dituzten garaiaren arabera berdina azpimarratzen duten...

- 2) Gogoan duzu egin zenuten ekintza soziala? Zer erakutsi zizun horrek?

Ekintza soziala aurretik sortutako baldintza batzuen ondorio zuzena da. Aurreko saioetan aldaketa babestu eta aldaketak sortzeko baldintza egokiak eman dira, oraingoan, horiek aurrera eramateko aukera bikaina dute. Iritsi da unea eta beraiek aukeratutako ekintza original bat burutu behar dute. Honek, talde-lana indartzeaz gain, aisialdiko ekintza positibo bat egitea ekar dezake, euskaraz.

- 3) eusLiderrak saioak eta gero, euskararen erabilera bultzatzen duen lagunen baten rola edo presentzia indartsuago agertzen da zure inguruan?

Beraiek hizkuntza lidergoaren zantzuak ikusten dituzten aztertzeko galdera da hau. Klasean norbaitek sustatzaile rola hartu duen ikusteko, hau da, eusLider rola hartu duen ikusteko galdera. Horrez gain, euskararen erabilerak gora egin duen ikusiko dugu ere, beraien ikuspuntutik klasekideen jarrerak aipatuko dizkigute eta.

- 4) eusLiderrak saioak eta gero, euskararen erabilera bultzatu duzu?

Ingurua aztertu eta gero, beraiek sustatzaile izan diren ikusiko dugu, euren burua aztertuko dute eta eusLider bezala ikusten duten ikusiko dugu.

- 5) Hizkuntzekiko lehen zenituen jarrerak eta oraingoak berdinak dira? Nola jokutzen duzu orain?

Saioetan zehar hizkuntza jarrerak landu dira eta hauek aldatzeko informazioa eskaintzen zaie gazteei. Galdera honen bidez, gazteak

eurek dituzten hizkuntza jarrerez kontziente diren ikusiko dugu baita ea jarrera hauek aldatu dituzten ere.

- 6) Nola tratatzen ditugu hizkuntzak? Zein jarrera ditugu hauekiko? Zuk zein jarrera zenituen lehen? Eta orain?

Galdera honetan hizkuntzekiko jarrerak aztertzeaz gain, hizkuntzei ematen zaien garrantziaz ere mintzatzea da helburua. Horrez gain, behin gai horien inguruan hitz eginda, oinarri batetik abiatuta eraldaketa eman den ere ikusiko dugu.

- 7) EusLiderrak saioak baino lehen eta ondoren, zerbait aldatu da zuen klasean? Zer?

Zerbait aldatu den galdetzean, ez gara zehazki hizkuntzen inguruan ari, hizkuntzak oro har, euskara, eskolako giroa, talde-lana, konfiantza... kontu desberdinak aipa ditzakete. Hori dela eta, galdera honetan ikastaroak ikasleengan izan duen eragina aztertuko dugu, inpresio desberdinak ikusiko ditugu.

- 8) Oro har, baliagarri gertatu zaizu eusLiderrak? Zertan bai? Zertan nahi/espero baino gutxiago? Zertan batere ez?

Galdera honekin, zuzenean galdetuko diegu ea baliagarria gertatu zaien tailerra, zer espero zuten, zertan izan zaien baliagarri eta zertan ez... beraien inpresio eta sentrazioak jaso nahi ditut, zuzenean.

- 9) Kontuan izanda EusLiderrak saioen azken helburua **euskararen**

erabilera sustatzea dela, zein puntuazio emango zenieke eusLiderrak saioei 0-tik 10erako eskala batean, helburu hori lortzeko trena gisa?

Oraingoan, kuantitatiboki esango digute ea saioek bere azken helburua, euskararen erabilera sustatzea, lortu duten.

10) EusLiderrak saioak eraginkorragoak izan daitezen, zer aldatuko edo hobetuko zenuke?

Saioak eraginkorrak izan daitezen, beraien esperientziatik eta usteetatik abiatuta zer aldatuko luketen galdetuz, proposamenak jasoko ditut. Hemendik, hobetzeko proposamen hauek jasota ondorio eta proposamenak aurkeztuko ditut.

11) Zure eskarmentutik abiatuta, gomendatuko zenioke lagun bati eusLiderrak saioetan izena ematea?

Azken galdera honetan informazio gehiago ematea espero dut, hau da, haien erantzuna arrazoitzea.

Galdera hauen erantzunak, aztertu eta hasieratik proposatu ditudan iker-galderei erantzuteko baliatuko ditut. Galdera batzuk iker-galdera batzuei lotuago egon arren, galdetegi bere osotasunean baliatuko dut beste zenbait galdera erantzuteko, besteak beste:

- Zenbateko eragina izan du ikastaroak?
- Gazte guztiek galdetegiak berdin edo antzeko bete dituzte?
- Neska eta mutilek galdetegiak berdin edo antzeko bete dituzte?
- Norengan du eragin handiagoa? Neskengan ala mutilengan?

- Ingurune soziolinguistikoak eragina du emaitzetan?
- Tailerra jaso duten mementotik gaur egunera duen eragina berdina da?

Azken galdera horri erantzuteko, hasieratik aurkeztutako hiru epeak baliatuko ditut, hau da, eusLiderrak saioak 2016/2017.ikasturtean, 2017ko urrian edo 2018.urtean jasotzea aldagai garrantzitsua izango da epe desberdinetan tailerrak duen eragina aztertzeke.

5) **Informazio enpirikoa**

5.1. **Landa-lana**

EusLiderrak saioa jaso duten ikastetxeak hirutan banatu ditut faseen arabera eta bitan euskararen erabilera datuak kontuan hartuz. Gauzak horrela, taula honetan jaso ditut ikastetxeak:

	2016/2017	2017 urria	2018
Erabilera %0-20	Ballonti BHI (Portugalete)	Ballonti BHI (Portugalete)	Badaia BHI (Langraiz)
Erabilera %21-40	Arratia BHI (Igorre)	Gernika BHI (Gernika)	Berriz BHI (Berriz)

Honekin bi aldagai jasotzeko aukera izan dut, batetik, eusLiderrak saioak noiz jaso ziren ikusi eta honen bidez, denbora duen eragina aztertzeke; bestetik, euskararen erabileraren datuen arabera eragina desberdina den ikusteko aukera.

EusLiderrak saioa noiz jaso duten ikusiz denboran duen eragina aztertzeke aukera izango dut, ikasturte honetan jaso dutenek ziurrenik ez dute ekintza soziala eginda izango edo hori prestatzeko lanetan

arituko dira.

Ikasturte berean baino lehenago jaso dutenengan izan duen eragina ere aztertuko dut, 2017ko urrian jaso zutenena hain zuzen ere. Azkenik, 2016/2017 ikasturtean saioak jaso zituztenengan izan duen eragina aztertuko dut, ea urtebete beranduago nola ikusten dute hizkuntzen gaia.

Euskararen erabilera datuak direla eta, hasieran batean, %0-50 - %51-%99 banaketa egin nahi banuen ere, gero konturatu nintzen banaketa hori ez zela erreala eta ezingo nukeela bigarren banaketako laginik jaso. Gainera, ez da berdina euskararen erabilera %2,9koa duen herri baten errealitate soziolinguistikoa eta %34,4koa duen beste batena, Portugalete eta Igorre kasu. Errealitatea berdina ez den moduan, eragina ere ez da berdina izango. Beraz, banaketa honen bidez, errealitate ezberdinetan ikastaroak duen eragina aztertuko dut.

Ikastetxe horietara jo dudanean bina edo hiruna ikasle elkarrizketatu ditut, horrela ikastetxe bakoitzari ikasle profil zehatz bat eskatu diot, aldagai hauek jasotzeko. Hurbilpen kualitatibo bat den heinean, kopuruari ez diot garrantzia handirik eman eta bilatzen nituen ikuspegi mota guztiak jasotzeari eman diot garrantzia. Gauzak horrela, hau da ikastetxe bakoitzean eskatutakoa.

- Portugaleten 2016/2017.ikasturtean saioak jaso zituztenen artean, lehen hizkuntza euskara duen neska bat, lehen hizkuntza gaztelania duen mutil bat eta hurrengo ikasturtean emaile aritu den beste ikasle bat.
- Igorren 2016/2017.ikasturtean saioak jaso zituztenen artean, lehen hizkuntza gaztelania duen neska bat, lehen hizkuntza euskara duen mutil bat eta hurrengo ikasturtean emaile aritutako

ikasle bat.

- Portugaleten 2017ko urrian saioak jaso zituztenen artean, lehen hizkuntza gaztelania duen neska bat eta lehen hizkuntza euskara duen mutil bat.
- Gernikan 2017ko urrian saioak jaso zituztenen artean, lehen hizkuntza euskara duen neska bat eta lehen hizkuntza gaztelania duen mutil bat.
- Langraizen, saioak 2018an jaso zituztenen artean, lehen hizkuntza euskara duen neska bat eta lehen hizkuntza gaztelania duen mutil bat.
- Berrizen, saioak 2018an jaso zituztenen artean, lehen hizkuntza euskara duen mutil bat eta lehen hizkuntza gaztelania duen neska bat.

Gauzak horrela, tokian tokiko euskararen erabileraz eta saioak jasotzeko epeez gain, beste hiru aldagai³ aztertzeko aukera izango dut, interesatzen zaizkidan ikuspegi guztiak ordezkatzuz.

5.2. Laginak

Landa lanean jasotzeko laginak zehaztu banituen ere, gerora jaso ditudanak ez dira bat etorri eskatutakoarekin.

Guztira, 15 gazte elkarrizketatu ditut. Horietatik, sei eusLiderrak saioak 2016/2017 ikasturtean jaso zituztenak dira, lau saioak 2017ko urrian jaso zituztenak eta bost 2018.urtean jaso zituztenak.

Tokian tokiko errealitate soziolinguistikoari dagokionez, hamabost horietatik zortzi euskararen erabilera %1-20 artean duten

herrietakoak dira. Gainerako zazpiak euskararen erabilera %21 eta %40 artean kokatzen den herrietakoak.

Generoari dagokionez, hasierako asmoa sei mutil eta sei neska elkarrizketatzea bazen ere (emaile aritu direnen kasuan generoari dagokion eskaerarik ez nuen egin), hamaika neska eta lau mutil elkarrizketatu ditut, izan ere baimen kontuak direla medio ezin izan dut eskatutakoa bere osotasunean bete.

Aipamen berezia egin nahiko nioke atal honetan emaileen kasuari, izan ere, bi emaile elkarrizketatu nahi nituen eta biak izan dira neskak. Ez hori bakarrik, Portugaleten emaile aritutako taldea ezagutzeko aukera izan nuen, eta bertan ikusi ahal izan nuen guztiak zirela neskak. Hori, emakumeek euskararen zaintzarekiko ardurarekin lotuko nuke, gerora horretan gehiago sakondu beharko nukeela jakitun.

Azkenik, aipatzea ere, hasiera batean hamalau gazte elkarrizketatzeko asmoa nuela eta Langraizen izan nuen beste boluntario bati esker hamabost pertsona elkarrizketatu ditudala. Elkarrizketa hauek guztiak sakonean ezagutzeko eranskinak atalean galderaz galderako taulak txertatu ditut, eta bertan elkarrizketatu bakoitzaren ezaugarriak bildu ditut erantzunekin batera.

5.3. **Emaitzak**

Hasieran aipatu bezala, hiru dira eusLiderrak saioen helburu nagusiak:

- 1) Hizkuntzekiko jarrerak landu, horretarako hizkuntzen

garrantziari buruzko informazio esanguratsua emanaz.

- 2) Hizkuntza-lidergoa eta talde-lana indartzea.
- 3) Eraldaketa sustatu eta portaera berriak sortzea.

Beraz, proiektu honen ebaluaziorako helburu hauen betetzea aztertzeari ekingo diot jarraian, lanaren emaitzak emanaz. Horretarako, lehenengo hizkuntzaren erabilerarako dimentsioetan, norbanako mailan kokatzen diren helburuak aipatzen hasiko naiz, hau da, lehenengo eta hirugarren helburuarekin. Ondoren, maila mikro-sozialean eragiteko helburua, bigarrena, aztertuko dut.

Hizkuntzekiko jarrerak landu, horretarako hizkuntzen garrantziari buruzko informazio esanguratsua emanaz. Hizkuntzen garrantziari buruzko informazioa jaso eta barneratu dutela esan dezaket, ezein dela ikastaroa jaso duten epea oraindik ere informazio hori barneratuta dute. Hizkuntzen garrantziari buruzko aipamenak etengabeak dira, hala ere, aitortu beharra dut euskararen garrantzian sakontzen dutela gehienek.

Hizkuntzen garrantziari buruzko aipamen batzuk dira ondorengoak.

- "...hizkuntzak garrantzitsuak direla eta ez direzela galdu biher" (Berriz, 2018, neska, lehen hizkuntza gaztelania). Horrela aipatzen zuen Berrizeko neska honek, hizkuntza ekologiarren⁴ ideiak barneratuta, hizkuntzen (guztien) garrantzia azpimarratuz. Gazte berdinak ikastaroa baliagarri gertatu zaion galdetzean "Igal jakiteko nola dauden beste hizkuntza eta bai" erantzun zuen. Erantzun hau ikusita esango nuke, hizkuntzen inguruko informazioa ematean hizkuntza guztien garrantziaz konturatzen direla, baita hauek guztiak ez galtzeko beharraz ere.

4 Hizkuntza eta ekologia uztartzen dituen korronea da, hizkuntza komunitate guztien zaintza helburu duena.

- "...hizkuntza bat gainera da kultura bat bezala eta dago oso lotuta horrekin orduan da garrantzitsuagoa" (Igorre, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza euskara). Igorreko gazte honen kasuan, hizkuntzak kulturarekin lotzen zituen horrekin garrantzia handituz. Hizkuntza - kultura loturak, hizkuntza komunitatea dakar berekin, eta horren aipamena egiten duen gaztea bere hizkuntza-komunitatearen parte sentitzea.

Esan bezala, gehiago ziren euskarari sakontzen zuten aipamenak, jarraian horietako batzuk:

- "euskerara... beste hizkuntza baten garrantzi berdina duela" (Langraiz, 2018, neska, lehen hizkuntza gaztelania). Lehen hizkuntza gaztelania duen gazte honi euskararen garrantziaz konturatzeko baliagarri suertatu zaiola esango nuke. Hizkuntzen garrantziaz, oro har, konturatzeaz gain euskara beste hizkuntzen pare jartzea ahalbidetu diola uste dut, baita gaztelaniaren pare ere. Horrek gutxiagotasun egoera batetik, euskaldun bezala ahalduntzera eraman duela esango nuke.
- "Gustatu zitzaidan jakitea euskara ez dela hizkuntza hain txikia munduan zehar" (Portugalete, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania). Hizkuntzen tamainaren inguruko aipamenak etengabeak dira, hitzun kopurua, non hitz egiten den... etengabe aipatzen dituzte. Horren adibide dira ere; "Euskera erabilten dala guk pentsaten doguna baino geau" (Igorre, 2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania).

Azkenik, bereiz aipatuko ditut mutilen aipamenak gerora sakontzeko

asmoarekin. Haien aipamenak eman aurretik, seinalatu nahiko nuke hizkuntzen garrantziari buruzko mutilen aipamenak euskararen garrantziari buruzkoak direla denak. Hau da, mutilen kasuan ez dute hizkuntza guztien garrantzian sakontzen, euskararen garrantzia da aipatzen dutena.

- “Euskera nitzako da oso inportantea” edo “euskera ez dala hain txikerra eta bueno ba garrantzitsue dala ez dala lelokeribet” (Igorre, 2017, mutila, lehen hizkuntza euskara). Gazte honen kasuan, garrantzitsua iruditzen zait aurretik ere zuen jarrera aipatzea, izan ere, aurretik ere hizkuntzen garrantziaz kontziente zela esango nuke. Kontzientzia hori izan arren, aurkeztu zitzaizkion datuak oso baliagarria izan zaizkiola esango nuke; garrantzia hori azaltzeko tresna baliagarriak izan direla esango nuke.
- “euskara pues...garrantzitsua dela” (Langraiz, 2018, mutila, lehen hizkuntza gaztelania).
- “euskara dala hizkuntza garrantzitsu bat” (Berriz, 2018, mutila, lehen hizkuntza euskara).

Hizkuntzen garrantziari buruzko informazioa barneratuta hizkuntzekiko jarrerak landu dituzte. Horren erakusgarri ditugu etengabeko aipamenak eta jarraian adibide batzuk ekarriko ditut.

Bi multzotan banatu ditut erantzunak; batetik, hizkuntzak duten estatusaren arabera nola tratatzen ditugun aipatzen duten erantzunak emango ditut; bestetik, ematen zaien erabileragatik hizkuntzak nola tratatzen ditugun edo hauekiko zein jarrera dugun aipatzen dutenak.

- “...ingelesa adibidez nire ustez garrantzia gehiago ematen diogula

euskara baino jeneralki e..." (Portugaletre, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania). Hau erantzunda *ingeleza garrantzitsuagoa den* galdetu eta honakoa erantzun zuen gazte honek: "Ez... hori euskal herrian bizitzen bazara inportantzia eman behar diogu euskarari eta ingelesari baita baina euskarari gehiago ze galtzeko zorian dago eta ez badugu erabiltzen ba azkenean desagertuko da".

- "...edo ikasi behar ditugu lanerako edo horretarako eta pues garrantzi handia ematen diete" (Langraiz, 2018, neska, lehen hizkuntza gaztelania). Erantzun honen aurrean, honako galdera egin nion "lanagatik ematen diegu garrantzia orduan?" bere erantzuna "bai hori da" izan zen.
- "nire ustez handienari iten dotzagu kasu baina txikerrenak iten doguz baztertu ..." (Igorre, 2016/2017, mutila, lehen hizkuntza euskara).
- "...gaztelaniak ee ... osea erderiek ee ... inportantzia gehixau dekola ... hori segun norentzat dan eske ez badabien itxen ..." (Gernika, 2017, neska, lehen hizkuntza euskara) Honek, hizkuntzaren garrantzia ulermenarekin lotzen du, horretarako inguruko hizkuntza handiagoetara joz, gaztelaniara hain zuzen ere. "Azken finien espainia guztixen itxen dalako ta gehixau ezautzen dalako edo holan ... " "azken finien euskeria euskal herrixen bakarrik iten dala da erderie in ahal dozu espainian edo frantzire bazoen ba gehixau ulertukotzue erderie ...".
- "Nire ustez ez diegu garrantzitsua ... garrantzia ematen" "... bakarrik ee ... ikasten ditugu pues ... esaten digutelako" (Langraiz, 2018, mutila, lehen hizkuntza gaztelania).

Aipamen horietan hizkuntzen garrantzia hauen tamainarekin lotzen dute batzuek, ulermenarekin besteek eta lanarekin beste batzuek. Azken finean, hizkuntzei duten estatusagatik ematen zaien garrantziaz eta trataeraz kontziente dira. Ulertzeko baliagarriagoak direlako duten garrantzia eta ematen diegun prestigioa, lanagatik ematen diegun prestigioa edota duten hiztun kopuruagatik (honek aurreko biek lotura duela esango nuke) ematen zaien garrantzia dira aipatzen dituztenak.

Atal honekin amaitzeko, hizkuntzei ematen zaien erabileragatik nola tratatzen ditugun azaltzen duten aipatzen duten aipamenak zerrendatuko ditut. Honek, euskara eskolarekin lotzen jarraitzen dutela erakusten du eta oraindik ez dela gazte askoren aisialdiko hizkuntza. Aisialdirako, ondo pasatzeko, gaztelania darabilte. Ondorio eta proposamenen atalean honen inguruan gehiago sakonduko badut ere, hemen gazteen aipamenak:

- "Hizkuntzak ba normalean euskararen kasuan ba nik uste dut badagoela ba nahiko zapalduta ta hemen gutxienez Portugaleten edo nik ikusten dudanean bada e ... klaseko gauza bat eta ez kalekoa, etxekoa ..." (Portugalete, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza euskara).
- "... euskera iten dogu oso gitxi gure artean bebai ze bagauzen kalean edo jaietara goazenean beti gabiz erderaz eta euskeraz ba ez dogu iten" (Igorre, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania).
- "Ba euskera ez zela beharrezkoa holan hitz egitea kalean eta ... ze zuk badakizu ya mundu guztiak berba iten dauela gaztelaniaz orduen gaztelaniaz ulertuko jatzuela lehenengoan eta ya..."

(Igorre, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania).

Eraldaketa sustatu eta portaera berriak sortzea. Hau izango genuke eusLiderrak saioen hirugarren eta azken helburua. Galdetegietan hau ere lortu dela ikusi dut, hala ere, sustatu diren eraldaketak eta sortu diren portaera berriak bitan banatuko ditut. Batetik, jarreretan eman diren eraldaketak edo jarreretan sortu diren portaera berriak ditugu; bestetik, pentsaeran eman diren eraldaketak edo sortu diren portaera berriak.

Jarraitu aurretik, aipatzekoa da gazte hizkuntzen garrantziaz ohartzea lortu den heinean, saioek eraldaketa sustatu dutela eta portaera berriak sortu dituztela. Hizkuntzei garrantzia ematen hasi dira gazteak eta horrek hauekiko zituzten jarrerak aldatzea ekarri du berekin. Izan ere, hizkuntzen garrantziaz ohartzeak oro har eta euskararen garrantziaz zehazki ohartzeak, aurretik zituzten portaera edo jarrera batzuk aldatzea dakar.

Jarrerari dagokionean, hizkuntza ohitura berriak sortu direla esan genezake, euskara gehiago hitz egitera jotzen dute zenbaitek; gehienek eskola eremura mugatzen badute ere. Aldaketa horiek beraz, eskola eremuan eman dira gehienetan, eta konfiantzazko eremuetan edo beraiek aukeratutako eremuetan beste batzuetan. Horren erakusle ditugu aipamen hauek:

- “Nire partez euskara gehiago erabili dut” “aurten bai gehiago erabili dugu baina eske pasaden urtean gaizki ezer ezer” (Portugalet, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania).
- “Galderak ditugunean holan klaseri buruz, lehen galdeten ginun batzutan euskera bestetan gaztelaniaz, ta orain usteot direzela

gehienetan euskeraz” (Igorre, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania). Gazte honen kasuan, eraldaketa klasean bertan eman da, euskara eskolarekin lotzen dutela erakutsiz beste behin ere, beraz, aisialdia euskalduntzeko dagoen beharra azaleratuz.

- “Ba lehen nire lagunek erdera gehixau iten zabien” (Gernika, 2017, mutila, lehen hizkuntza gaztelania). Gazteen arteko hizkuntza erabilera aldatzen hasi da, euskararanzko joera hartzen hasia dela azaltzen digu gazte honek.
- “Osea nik pentsatzen nuen klaseak bueno saioak egin baino lehen pentsatzen nuen euskara oso garrantzitsua dela eta hitz egitea beharrezkoa zela baina ez nuen hitz egiten eta saioak eta gero ba ... agian bai hasi naizela euskaraz hitz egiten” (Portugalete, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania). Kasu honetan, euskarari dagoeneko ematen zion garrantzia handitu egin dela esan dezakegu, eta gainera euskararen erabileran pausoak ematea ekarri dio gazte honi.
- “...erdera ba gehienbat handiena zenez ba euskera maitatu arren ba egiten nuen erderaz, orain ba ... sin mas eiten dot erderaz baina ... txoko txiki batzuetan eiten dot euskera geau” (Igorre, 2016/2017, mutila, lehen hizkuntza euskara). Gazte honen kasuan, pentsatzeko era aldatzeaz gain jarrera ere aldatu duela esan genezake. Izan ere, euskara hizkuntza ertaina dela konturatu da, ez txikia, horrek ahaldundu ahal izan euskaraz gehiago aritzeko eta portaera berriak sortzen hasia da, oraingoz berak aukeratutako txoko txiki horietan. Gazte honek berak, ondokoa ere esaten du: “Gure artean eiten dogu euskera gehiago”. Beragan soilik ez ezik, taldean ere eragin duela adierazten digu honen bidez. Hau, aurretik

aipatu duen ikaskideen arteko konfiantzarekin ere lotu daiteke.

- "...nik dekot lagun bat beti erderaz itezte ta nik euskeraz itetzat da nik osea berak erderaz erantzutezte ta nik euskeraz itetzat ...". Honen aurrean euskaraz gehiago erantzuten hasi zaizkion galdetzean hau erantzuten du gazteak: "gero eta gehiaxau hori bai ze adibidez haserretzen banazen ya euskeraz iteoztie ... da ... ba holan .. gitxika gitxika bai iteoztie euskeraz da ... konturatu iten zara" (Gernika, 2017, neska, lehen hizkuntza euskara). Gazte honek portaera berriak sortzea lortu da, hizkuntza ohitura berriak sortzea. Orain, gaztelaniaz erantzuten badiote ere euskarari eusten dio, gainera liderra da eta euskararen erabileran eragiten du, horren kontzientzia duelarik.

Jarrera moduan sailkatu ditudan eraldaketa ta portaera berrien adibide gehiago jar baditzaket ere, pentsamendu moduan sailkatu ditudanekin hasiko naiz. Aurreko gehiago aurkitzeko, eranskinen atalean aurkituko dituzue galdetegi osoak.

Pentsaeran eman diren aldaketak direla eta, oro har, hizkuntzen garrantziaz ohartzearekin eman direnak ikus ditzakegu. Hala ere, hemen batzuk zerrendatuko ditut. Hasi aurretik, aipatu nahiko nuke, pentsaeran ematen diren aldaketa hauek eragin zuzena dutela jarreran.

- "... garrantzi handia ematen diot (hizkuntzari) bueno lehen gutxiago orain konturatu naiz ze inportantzia duten eta espero dut gero eta garrantzi handiago ematea" (Portugalet, 2016/2017, neska, alehen hizkuntza euskara, emaila).
- "... euskera nik pentzetan naben asko be gutxiau iblten zala

munduen eta dala ba hizkuntza bastante gatza ba besteantzako igual baia emoten dau ba jende askok bueno dakiela edo ...” (Igorre, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza euskara, emailea).

- “pues ... ez nion garrantzia ematen, orain bai, garrantzia ematen diot eta .. pues ... saiatzen naiz .. euskera gehiago erabiltzen eta ...” (Portugalete, 2016/2017 neska, lehen hizkuntza gaztelania).

Hiru adibide horiek hizkuntzen eta gehienbat euskararen garrantziarekin lotuta daudela ikus dezakegu, beraiek garrantzia ematen diotenean ere horrek aldaketak sortuko dituela ondoriozta genezake, izan ere, euskarari garrantzia ematen badiote euskara gehiago erabiltzen edo aldarrikatzen hasteko aukera gehiago sortuko dira.

Hurrengoak, aldaketa hori berarekin pertsonalki eta bere sentimenduekin lotzen duela ikus dezakegu. Honek, euskaraz aritzeko egin dezakeen hautua edo euskararen alde egin dezakeen bidea suntsitzeko aukerak deuseztatuko dizkio. Bere hautu pertsonala izango da, berea eta ez beste inorena, eta horrek inork hori desegiteko izan dezakeen asmoa bertan behera utziko du. Ikus dezagun nola egiten duen lotura hori euskara eta sentimenduen artean:

- “Bai etorkizunari begira nik uste dut euskarak nigan izan duela presentzia edo ... gaur egun ikusten dudalako inportantzia izango duela zere etan ... ez dakit .. uste dut ... euskarak zeozer berezia ematen duela eta aberastasuna” (Portugalete 2016/2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania).

Berezitasun horrek emango dio gazte honi euskaraz bizitzeko hautua egiteko erraztasuna.

Maila mikro-sozialean eragitea helburu duen *hizkuntza-lidergoa eta talde-lana indartzeari* dagozkion erantzunak aztertuko ditut jarraian.

Dimentsio honetako bi osagai izango dira garrantzitsu helburu honi dagokionean. Harremanen trinkotasuna batetik, eta horretarako talde-lana indartzea izango dute helburu saioek. Bestetik, hizkuntza-hautua egiteko ahalmena, horretarako hizkuntza-lidergoa indartuz.

Hizkuntza-lidergoa eta talde-lana indartzea.

EusLiderrak saioen bigarren helburua hizkuntza-lidergoa eta talde-lana indartzea da, hau ere bete duela esango nuke. Talde-lana indartzea ekintza soziala egin eta gero ikusten da, baita hurrengo ikasturtean saioen emaile aritu direnen artean ere. Saioa 2016/2017. ikasturtean eman zutenen artean horrelako aipuak aurkitu ditut "EusLiderrak saioak baino lehen eta ondoren, zerbait aldatu da zuen klasean? Zer?" galderaren erantzunetan.

- "Gure artean be bai konfiantza edo geau" (Igorre, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza euskara, emailea) edo "...ba ... ikasiguz gauzak berriek eee bebai ein dogu parte hartu ta hartu dogu igual konfiantza igual, juntau gara beste klaseakaz, gero txikiakaz geau ...". Ekintza soziala egin eta gero, talde-lan horren emaitza zuzena da konfiantza. Ekintza sozialaren helburua ekintza bat euskaraz burutzea da, horrek ekintza hori taldean sortu eta egitea dakar. Elkarlanean aritze horrek sortu du konfiantza euren artean. Gainera, konfiantza hori euskaraz sortu da, euren arteko harremanak euskaraz sendotuz.
- "eusLiderrak emoten ari diezenak oingo urtean eee ... eukin daurie holan ee ... erlazio estuagoak haien artean eta lan giro hobegoa" (Igorre, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania). Gazte honek, emaile aritu direnen artean talde-lanak sortutako konfiantza

aipatzen du. Kanpotik ikusita ere, gazteek eurek, talde kohesioa hautematen dute, eta baita honek dakarren elkarren arteko konfiantza ere.

- “Bai ikusi dodala ba igual eusLiderren taldean egon zan jendeakin errezagoa izan zala euskeraz egitea eta haiekin egiten dut euskeraz” (Igorre, 2016/2017, mutila, lehen hizkuntza euskara). Aipamen hau talde-kohesioarekin lotuko nuke, talde-lanaren emaitza. Talde horretan parte-hartu zuen jendearekin errazago zaio euskaraz aritzea, konfiantzaren emaitza?
- “euskaraz hitz egitea ba taldean ba ... hori garrantzia eman genion” (Portugalete, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza euskara). Hau ekintza sozialak bere helburua bete duenaren erakusle dugu, euskaraz hitz egitea taldean edo ekintza bat euskaraz egitea. Taldean aipatzen du, talde-lanean jardun izanaren erakusle.
- “... osea euskararekin lotuta agian ez baina agian giroa bai hobetu egin dela” (Portugalete, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza euskara). Gazte honek ere, hobekuntza giroarekin lotzen du.

Erantzunetatik hartutako aipu hauek talde-lana eta konfiantzaren arteko lotura egitera naramate. Euskarazko ekintza bat sortzen eta aurrera eramaten, talde-lanean aritzeak euren arteko konfiantza handitzea ekarri duela ondoriozta dezakegu. Honek gainera, euren artean euskara gehiago erabiltzea ahalbidetu du zenbait kasutan eta ahalbidetu dezake.

Talde-lana indartzearekin batera, hizkuntza-lidergoa indartzea ere saio hauen helburua da. Honi dagokionez, eusLider bilakatu diren zenbait gazte aurkitu ditugu. Guztiak ez dira eusLider idealak, gutariko inor

ideala ez den moduan. EusLider izendatuko ditut hizkuntza-lidergoa indartu duten gazteak, euskararen erabilerari dagokionean lider izenda ditzakegunak. Zenbaitek, hizkuntzen lidergoa eremu guztietara zabaltzen dute, beste batzuek aldiz, eskola kontuekin lotzen dute soilik eta eskolan dira eusLider. Hala ere, hau aurrerapausotzat hartzen dut, eskolatik kanpo lidergoa indartzea ere eman daitekeela uste dudalako. Finean, koherentzia kontuagatik has daitezke eskolatik kanpo ere euskaraz, edo eskolako lagunekin hizkuntza ohitura berriak sortu badituzte eta euren harremana euskaraz berreraiki badute, egingarriagoa izango da eskolatik kanpo ere euskaraz aritzea.

Hizkuntza-lidergoa indartzeari dagozkion aipuak jasoko ditut jarraian:

- “Orain ikusten dut beste modu batez ba adibidez hizkuntza bat ez galtzeko ba guztiok e zerbait ipini behar dugula eta hitz egin behar dugula” (Portugalete, 2017, neska, lehen hizkuntza euskara). Askotan entzun dugun kontua izan daiteke, baina gazte honek bere egiten du, euskaraz aritzeko duen prestutasunaren seinale eta bere apurra eskaintzeko prestutasuna adieraziz. Hau, lidergoarekin lotu dezakegu, bera prest baitago pauso hori ematen hasi eta euskaraz aritzeko.
- “Ni euskeraz hitz egin nahi dudanez ba beste batzuei animatu euskeraz hitz egiten” (Portugalete, 2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania). Gazte honek bere hautua egin du, euskaraz hitz egin nahi du eta horretarako kontziente da beste batzuen babesa behar duela, beste gutxienez euskaraz hitz egingo duen beste pertsona bat behar duela euskaraz aritzeko. Hori kontuan izanda, beste batzuk animatu nahi ditu euskaraz hitz egitera, liderra izango da, berak hitz egiteaz gain, besteak ere animatuko dituelako.

- “ba gehiago hitz egiten eta besteak animatzen” (Portugalete, 2017, neska, lehen hizkuntza euskara). Gazte honek horrela erantzuten du *saioa zertan izan zaion baliagarri* galdetzerakoan. Gazte honek ere, aurrekoaren moduan, hautu bat egin du, gehiago hitz egitea. Horretarako, kontziente da euskaraz hitz egingo duen jendea behar duela eta “besteak” animatuko ditu. Besteak hori ingurukoak izango dira, ingurukoengan eragin nahi du, hizkuntza-liderra dugu hau ere, eusliderra.
- “nola handiagoak gara eta kontzientziak esaten digu euskara bultzatzea osea behar dugula euskara bultzatzea” (Portugalete, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania). Gazte honen kasuan, DBH 4.mailako ikasle izanik, eskolako nagusien taldekoa da eta honek kontzientzia piztu eta liderra izatera eramane du. Nagusiago izanda euskara bultzatzearen ardura hartu du, kontziente izanik gazteagoek imitazioz jokatzeko dutela, berak jokatu duen moduan; eta orain bera dela eredu euskararen erabilerari dagokionean.
- “bai saiatu naiz euskera gero eta gehiago erabiltzen” (Igorre, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania). Horrela erantzuten dio *eusLiderrak eta gero, euskararen erabilera bultzatu duen* galdetzean. Gazte honek euskara gero eta gehiago erabili badu edo horretan saiatu bada, besteengan ere eragin du. Izan ere, hitz egitea ez da kontu indibiduala, komunikatzeko gutxienez beste pertsona bat behar du eta beste pertsona horri edo horiei euskaraz egin badie, horiengan eragin du. Hala ere, euskara gero eta gehiago erabiltzearen kontuarekin, hori nola egin duen galdetzerakoan honakoa erantzun zuen; “zeozer galdetzean denean

klasearen gauza bat gaztelaniaz edo ni saiateot euskara eiten". Honek erakusten digu, bere lidergo hori klaseko kontuetara mugatzen dela. Oraindik ere, euskara eskolarekin lotzen du, ez bere aisialdiarekin edo bere egunerokoarekin oro har.

- "... esan notzen nik euskeraz ingotzut da azken finien nik euskeraz iterakoan eurek euskeraz erantzuteztien" (Gernika, 2017, neska, lehen hizkuntza euskara). Gazte honekin osatutako galdetegia ikusita berezko eusLiderra dela esango nuke. Berak hautua egingo du, euskaraz egingo du eta badaki gainera, bere ikaskideek euskara jakin badakitela. Beraz, argi eta garbi esan die lagunei berak euskaraz egingo diela, gauzak hitz eginda lortu du lagunak berari euskaraz zuzentzea, eta egiten ez duten kasuan berak euskaraz egiten jarraituko du. Gazte honen kasuan esango nuke, eusLiderrak saioek lider moduan indartzeko eta ahalduntzeko tresnak eman dizkiotela, lagunekin euskaraz aritzeko tresnak hain zuzen ere. Gainera, gazte hau Gernikako eusGazteak programan ere ari da, beraz, bertan parte hartzeko aukera ere eskaini diote saio hauek.

Emaitzen atal honekin jarraitzeko, gazteek galdetegiaren egindako balorazio eta proposamenak jaso nahiko nituzke. Horretarako, egin nizkien bi galderetan jasotako erantzunak emango ditut.

Kontuan izanda eusLiderrak saioen azken helburua euskararen erabilera sustatzea dela, zein puntuazio emango zenieke eusLiderrak saioei 0-tik 10-erako eskala batean, helburu hori lortzeko tresna gisa?

Galdera honi erantzunez, gehienek bestelako arrazoiketarik gabe puntuazioa eman dute, hala ere, egon dira puntuazio horri lotutako hiru azalpen.

Puntuazio kuantitatiboak dagokienez, 7 eta 9 arteko puntuazioak dira

denak.

7puntu	7-7,5puntu	7,5puntu	7,5-8puntu	7-8puntu	8puntu	8-9puntu	9puntu
2	1	1	1	1	4	1	3

Puntuazio hauek justifikatzeko, hiru izan ziren emandako azalpenak.

- “8 ze azkenean guk in behar dogu euskeraz, ez da holan saio batzuk egiten badaurie euskeraz eta besteek gaztelaniaz ez da asko egiten”. Honi ondokoa galdetu nion “baina pizteko edo balio izan dute?” erantzuna baiezkoa izan zen. (Igorre, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania).
- “Aber eske erabilera batzueri ezintzezu aldatu zer ein da zer ez orduen ... eurek konturatu bidie etxien zer eiten dabien, kalien zer iten dan hemen zer iten dan osea ez dakienari gustetan ezetz esaten batzuen ez dabie egingo, ba ez dakit ... 8” (Gernika, 2017, neska, lehen hizkuntza euskara).
- “7 7,5 osea balio dau baina ez dogu iten” (Berriz, 2018, neska, lehen hizkuntza gaztelania).

Puntuazioak ikusita, balorazio ona ematen dietela esango nuke. Hala ere, argi dago beti dagoela zer hobetu. Kontziente izan behar dute euskararen erabilera ez dagoela euren esku soil-soilik. Maila makro-sozialean eta maila mikro-sozialean ere eragin beharra dagoela. Hala ere, beraiek kontziente izaten hasi eta euren portaera berriak sortzeak bidea egiten lagunduko die. Zer hobetu dagoela kontziente izanik eta saioak gazteek jasotzen dituztela jakinik, honako galdera hau luzatu

nien:

EusLiderrak saioak eraginkorragoak izan daitezzen, zer aldatuko edo hobetuko zenuke? Zazpi dira gazteek egindako eskaerak, saio hauek hobetzeko asmoz. Egiten dituzten proposamen guztiak zerbait gehitu edo aldatzekoak dira, ez dute ezer kentzeko proposamenik egin.

Zenbaitek dinamikotasun falta aipatzen dute "... joko gehiago egitea ..." (Portugaletxe, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania) edo "...eurek guri azaltzera etorten zirenean ba ... igual ... ekintza geau eitea geure artean" (Igorre, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza euskara, emalea). Saio hauetan guztietan informazio asko ematen da eta apenas uzten da dinamiketarako aukerarik. Saioetan dinamika gehiago txertatzea interesgarria litzateke, saioetako zenbait ondorio eurek ateratzea. Hori egingo balitz, gehiago barneratuko lituzkete zenbait kontzeptu, ondorioetara beraiek iritsita informazio gehiago barneratzeko aukerak daudelako. Hala ere, hau horrela egiteak bere arrazoi du. Izan ere, ez zaie parte hartzeko aukera handirik ematen egungo marketinaren joerei jarraituz diseinatutako saioak direlako. Marketinean egiten den moduan, informazio bonbardaketa erabiltzen da aldeko sentimendua sortzeko. Horregatik beraz, informazio bonbardaketa hori mantentzea ezinbestekoa da, parte-hartzerako beste aukera batzuk sor daitezkeela uste badut ere.

Honekin batera, bi gaztek ekintza sozialak egitea eskatzen dute. Aitortu behar dut, Langraizera joan nintzenean, oraindik ere ekintza soziala egin gabe zeudela gazteak, elkarrizketa bitartean galdetu eta zer zen azaldu nienean hori egiteko gogoia piztu zitzaizela esan daiteke beraz.

Ekintzekin lotuta egon daitekeen beste eskaera bat, zehatzagoa dena ere

jaso dut. "Bideo gehiau edo ipini, ze batzutan izan ziren azalpen gehiegi eta ba ... aspertzen zara ta igual beste gauza batzuk egiten badituzu ba gehiago parte hartzen dozu ta hobeto ..." (Berriz, 2018, neska, lehen hizkuntza gaztelania). Dinamika gehiago eskatu beharrean, honek bideoak eskatzen ditu zehazki. Askotan jartzen diren bideoak, emandako azalpenak errepikatzen dituzte, modu atseginean. Honek, informazioa barneratzea errazago bihurtzen du.

Honekin lotuta, zenbait gaztek saio gehiago eskatzen dituzte "... ba agian saio bat gehiago edo gehitu bai ze besteak ondo egon dira klase guztia parte hartu duelako" (Portugalete, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza euskara, emaila), "... agian saio gehiago ze ez digu nire ustez ez du denbora ematen dena kontatzeko edo ..." (Portugalete, 2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania) edo "Ba gehixau ipini" (Gernika, 2017, mutila, lehen hizkuntza gaztelania). Gazteek interesa dutela ikus dezakegu hemen, saio gehiago nahi dituzte, informazio gehiago. Honek erakusten digu jasotako informazioa barneratu ez ezik, gehiago jasotzeko gogoekin daudela.

Dinamikak eskatzearekin lotuta egon daitekeen beste eskaera bat ere egiten dute, parte-hartzeko aukera gehiago izatea. Horrela aipatzen dute "Parte hartzea edo ... guk gehiago hitz egitea" (Portugalete, 2017, neska, lehen hizkuntza euskara) edo "Ba ... jendearen partaidetza edo ... parte hartzea jendeai" (Berriz, 2018, mutila, lehen hizkuntza euskara). Hemen parte-hartzearen inguruan bi eskaera desberdin ditugula esango nuke. Lehenengo gazteak, parte-hartzea eskatzen du oro har, guztien parte hartzea dinamika desberdinak eginez agian, edo iritzi desberdinak partekatuz. Bigarrenak aldiz, horrez gain jende guztiaren parte hartzea eskatzen du, gutxi batzuek ez dezaten dena erantzun. Izan ere, bere erantzuna ikusirik gutxi parte hartu zuten galdetu eta baietz erantzuten

du, honen aurrean ondoko galdera luzatu nion "Baina aukera gutxi izan zenutelako edo zuek gutxi parte-hartu zenutelako?" eta honen erantzuna "Depende zein... galderak bai baina adibidez baten bat zegoen dana erantzuten edo". Beraz, bigarren honen kasuan guztiek parte-hartzeko aukera berdintasunaz ari dela esango nuke.

Parte-hartzeaz ari naizela, Igorreko gazte baten eskaera aipatu nahiko nuke. Bertan, ikasle guztiei parte-hartzeko aukera eskaini zitzairen eta nahi zuenak hartzen zuen parte. Horren aurrean, hau da gazte honek egiten duen eskaera edo proposatzen duen hobekuntza " ... agian .. talde ... klaseko batzuk izan beharrean taldekide guztiek egin behar izatea eusLiderrak ze azkenean batzuk bakarrik inplikatzeko dira betikoak eta bueno besteari ez dio ezer egiten aldaketak eta ..." (Igorre, 2016/2017, mutila, lehen hizkuntza euskara). Ezagutu ditudanetatik, ikasgela bakarra da parte hartzeko edo parte ez hartzeko aukera izan duena, ez baita ohikoena. Dena den, bat nator gazteak eskatzen duenarekin, guztien parte-hartzeak eragiteko aukera gehiago sortuko ditu eta. Gainera, talde zabaltzeak maila mikro-soziala zabaltzea ekar dezake ere.

Hobekuntza edo aldaketekin amaitzeko, ondorengo eskatzen du gazte batek " ez izetie hain ... osea en plan aste bat bai bi aste ez aste bat bai ... osea hain luziek ... osea zerbait iten badozun segiduen eiteie ze azken finien ahaztu itzen zara ta gero ostabe datoz da geratzen zara ee?" (Gernika, 2017, neska, lehen hizkuntza euskara). Hala ere, hau horrela egiteak badu bere arrazoia, emandako informazioa barneratzeko tartea da uzten dena, beraz horrelako eskaera bat aplikatzea zaila izango litzateke.

Azkenik, saioa beste inori gomendatuko lioketen galdetu nien, guztiek erantzuten zuten baiezkoa eta horretarako nork bere arrazoia eman

zuen.

Zenbaitek gustatu zaiela aipatzen dute, beste batzuek hizkuntzen garrantziaz ohartzearekin lotzen dute, baita aberastasunarekin ere. Ikasitakoa zabaltzeko nahia, prestutasuna, adierazten dute.

Jasotako erantzunen artean bi nabarmendu nahiko nituzke. Lehena lidergoarekin lotzen dut eta honela dio " ... e ... bai ... e ... zu irakasle bezala zaudenean klase bat zuzentzen duzu eta euskara erabiltzen duzu denbora guztian eta bai ..." (Portugalete, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza euskara). Batetik, gazteagoei saio hauek ematerakoan hartzen duten lidergoa azpimarratu nahiko nuke, *klase bat zuzentzen duzu* aipatzen du gazteak, kontziente delarik DBH 3.mailako gazteentzat eredu direla. Honek zuzenean koherenteak izatea eskatuko die, kontziente dira ez dela zuzena horrelako saio bat ematera joan eta bertatik kanpo gaztelaniaz etengabe aritzea. Horrela aipatzen du berak ere *euskara erabiltzen duzu denbora guztian*. Lidergoa indartu denaren seinale dugu gazte honen adibidea.

Nabarmendu nahi dudana bigarren erantzuna eraldaketarekin dago lotuta eta horrela erantzuten du gazteak: "Bai, ze niri zerbait aldatu nuen ze gogo gehiagorekin hitz egin nahi dut euskeraz orduan beste bati gomendatzen badiot agian berak aldatzen du eta nahi du euskeraz hitz egin" (Portugalete, 2017, neska, lehen hizkuntza gaztelania). Zerbait aldatu duela ikus dezakegu ere erantzunean eta zer hori hain da pertsonala eta berea aurrera jarraitzeko indarra emango diola. Eraldaketa hori motibazioan eman dela ondoriozta daiteke, horren ondorioz euskara gogo gehiagorekin hitz egiten duela aipatzen baitu. Emaitzetan beraz, ondorioak gehiago edo gutxiago baina bete direla esan dezakegu eta hizkuntzen garrantziari buruzko informazio esanguratsua

jaso zein hizkuntzekiko jarrerak modu arrakastatsuan landu dituztela ere.

6) **Ondorioak, hausnarketa eta proposamenak**

EusLiderrak eta gero jasotako emaitzak aztertu ondoren eta Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzari baliagarri izan dakioken proposamenak luzatu nahian, lanaren ondorioak, hausnarketa eta proposamenak luzatuko ditut. Betiere, kontuan izanda sakontze egitasmo honek lan-ildo ezberdinak lantzeko bide ematen duela baina honen ezaugarrietara moldatu eta ez ditudala guztiak sakonduko. Hala ere, aurrera begirako proposamenen artean, sakontzeko hainbat gai ere aipatuko ditut.

Saioon lehendabiziko helburuari dagokionez, gazteek hizkuntzen garrantziari buruzko informazio esanguratsua jaso dutela baieztatu dezaket eta baita hizkuntzekiko jarrerak landu dituztela ere. Guztiek aipatu dute etengabe hizkuntzen garrantzia, denboran zehar eraginak iraun duela ere esan dezakegu.

Hemen bi fenomeno desberdin ikusteko aukera izan dut eta aurrerago sakontzekoak badira ere ez nuke aipamen txiki bat egin gabe jarraitu nahi. Batetik, ama-hizkuntza gaztelania dutenengan hizkuntzen garrantziak kontzientzian eragin handia izan du. Euskara, haienezako eskolan ikasitako hizkuntza; euren lehen hizkuntza den gaztelaniarekin parekatzeko aukera izan dutela esan genezake, euskarari prestigioa eman diotela. Honek euskaldun bezala ahalduntzea ekarri diela esango nuke.

Bestetik, lehen hizkuntza euskara dutenengan ere eragin du hizkuntzen garrantziaz ohartzeak. Izan ere, askotan euskaldun izateagatik bizi dugun zapalkuntza egoeratik irtetea ahalbidetu diela uste dut, hauek ere

ahaldundu ditu euskaldun bezala. Berezkoa duten hori, ama-hizkuntza euskara duten horiek, horren balioaz jabetu eta ahaldunduz.

Ahalduntzeari dagokionez, gazte baten hitzak ekarri nahiko nituzke, horrela zioen berak "gustorago sentitu nintzen euskeraz gehiago hitz egiten hasi nintzelako ..." (Portugalete, 2016/2017, neska, lehen hizkuntza euskara, emailea). Gazte hau euskaldun bezala ahaldundu eta euskaraz eroso sentitzen hasi da, honek bere buruarekin gustura sentitzea ekarri diola aitortzen du. Fenomeno hau, neskengan indartsuagoa dela esango nuke, emakumeok bizi dugun zapalkuntza anitzagatik izan liteke, euskaldun eta emakume izatearen zapalkuntza bikoitza. Hala ere, ez dut gehiago sakonduko eta hemen utziko dut lan-ildo zabalik, aurrera begira landu eta sakontzeko.

Hizkuntzen garrantziaz ohartzean egin dituzten aipuei erreparatuz, beste zerbait ikusteko aukera izan dut ere. Eremu euskaldunetako⁵ neskek hizkuntzen garrantzia gehiago barneratu dutela ikusi dut. Eremu erdaldunagoetakoek aldiz, euskararen beraren garrantzia azpimarratzen dute. Berdina gertatzen da mutilen kasuan, euskararen garrantzia azpimarratu dute kasu guztietan, ez hizkuntzen oro har. Honek ere beste lan-ildo bat proposatzeko aukera ematen du, beraz aurrera begira lanean jarraitzeko bidea utziko dut hemen.

Martinez de Luna, Suberbiola eta Basurtoren lana oinarri, hizkuntzaren erabileran norbanako dimentsioan eragin duela esan genezake beraz. Dimentsio honen osagaietan motibazioan eraginez.

Bigarren helburuari dagokionez, proiektuak hizkuntza-lidergoa eta talde-lana indartzea lortu duela esango nuke. Hala ere, helburu hau ez da

5 Lan honetan eremu euskaldun horretan erabilera %21-40 artean duten herriak sartzen dira.

beste hizkuntzen garrantzia eta hizkuntzekiko jarrerak lantzearen helburua bezain beste bete.

Dena den, talde-lana arrakastaz bultzatzen duela uste dut, ekintza sozialak horretarako bide ematen du eta. Gainera, asko dira giroa hobetu dela aipatu duten gazteak, edota konfiantza gehiago dutela aipatzen dutenak. Konfiantza honek euren arteko erabilera bultzatu du askotan. Garaiei dagokienez, saioak 2016/2017.ikasturtean jaso zituztenek gehiago indartu dute talde lana, hala adierazten dute ekintza sozialaren inguruan galdetzerakoan.

Hizkuntza-lidergoa ere indartu du, zenbaitetan eskolako kontuetara mugatu bada ere. Emaileei dagokienez, euskara gehiago erabiltzen hasi direla, baita zenbaitek gusturago sentitu direla ere. Beraz, lidergo kateak eragina duela esan genezake, baita koherentzia kontuak direla eta euskara gehiagotan erabili dutela ere, askotan gazteagoen aurrean bada ere. Hala ere, lidergoa ez da emaleetara mugatu, maila desberdinean etengabe ikusi dugun kontua da saioak 2017.urtean, bigarren garaian, jaso dituztenengan ere.

Hizkuntzen erabileran eragiten duten faktoreetan jotzen badugu, kasu honetan, dimentsio mikro-sozialean eragin duela ikus dezakegu. Horretarako, ekintza sozialak harremanak trinkotu dituela esan genezake. Ikaskideen arteko harremanak trinkotuta egoteak euskara gehiago erabiltzea ekarri du, hori da haien pertzepzioa eta harremana zenbat eta trinkotuago egon, orduan eta euskarara jotzeko erraztasun handiagoa izango dute.

Hizkuntza-hautua egiteko ahalmenean ere eragin dute saioek, harremanak trinkotzeak hizkuntza-hautua egiteko erraztasuna ekarriko

du, baina ez hori bakarrik, berdinen arteko hizkuntza-lidergoak hautu hori egingo duten lehenengo ikasleak ahaldundu ditu. Euskaraz aritzea egingarria eta arrakastatsua bada berehala lortuko dituzte jarraitzaileak, taldea euskaldunduz.

Azken helburuari dagokionez, eraldaketa sustatu eta portaera berriak sortu dituztela baieztatuko nuke. Eraldaketa eta portaera berri asko pentsamenduari dagokionez eman dira, baina horiek ere aurrera begira garrantzitsuak direla uste dut jarrera aldetik ere aldaketak emateko. Gainera, azterketa zehatzago bat beharko balu ere, pentsamendu aldetik emandako aldaketa horiek praktikan ere aldaketak ekarri ditzaketela uste dut.

Honek ere norbanako mailan motibazioan eragin zuzena du. Eraldaketa sustatu bada, motibazioa egon delako izan da. Ezin dugu ahaztu, ukipen egoeran dauden hizkuntzetan, hizkuntza gutxituaren aldeko hautua egiteko guztiz beharrezkoa izango dela motibazioa. Horretarako bidean portaera berriak sortu eta eraldaketa sustatu da proiektuan zehar.

Beraz, esan genezake, hiru helburuak maila desberdinean bada ere bete dituela. Horrez gain, gazteak euskaldun bezala ahalduntzea ere lortu duela baieztatu dezaket. Ahalduntze hori desberdina izan da generoaren arabera eta baita eremu soziolinguistikoaren zein ama-hizkuntzaren arabera ere. Baina denek eskertu dutela baieztatu dezaket, baliagarri gertatu zaiela baieztatzen dute eta. Ez hori bakarrik, beste norbaiti gomendatuko lioketela ere onartzen dute.

Arrakastatsua dela uste badut ere, beti dago zer hobetu. Hala ere, ezin dugu ahaztu ezin dugula euskararen erabileraren zama guztia gazteen esku utzi, guztiok eragin behar dugula maila guztietan. Hori erakutsiko

digu euskaraldiak ere.

Atal hau amaitzeko, aurrera begirako proposamen bat egin nahiko nuke. Portugalete eta Gernikako kasuetan, gazteak beste programa batzuetan parte-hartzera animatu dituzte eusLiderrak saioek. Portugaleteren kasuan, gazte bat euskarAbenturan parte hartzera animatu da, berak hala esanda, baina baliteke gehiago ere izatea. Gernikaren kasuan EusGazteak programan parte hartzera animatu da gazte bat. Honek erakutsi dit, ikasle batzuegan eusLiderrak saioek eragina izan dutela gerora eskolaz kanpoko ekimen horietan parte hartzeko eta euskararen sustatzaile izateko, horrek dakarren koherentzia beharrarekin eta lidergoa herri mailan indartzearekin.

Gainera, ikusita gazteen gehiengoak oraindik ere euskara eskola kontuekin lotzen duela, garrantzitsua deritzot eskolaz kanpoko ekimenak euskaraz egiteari eta horrelako eusGazteak moduko programak garatzeari. Honen bidez, gazteek euren aisialdia euskaraz eraikitzen hasteko aukera izango baitute.

Gernikako EusGazteak programaren bidez, gazteak sustatzaile izatea bilatzen da, honek ekarriko duen koherentzia beharrarekin. Gainera, herri mailako liderrak sortzeko aukera emango du programak, eta euren aisialdia euskaraz eraikiko dute. Horrela euskara eskolarekin lotzeari utzi eta euskara ondo pasatzearekin lotzen hasteko bidea egingo dute.

Beraz, eskola mailako lanketaz gain, nire proposamena horrelako saioek herri mailan jarraipena izatea da, eskola mailako dimentsio mikro-soziala dei dezakeguna herri mailara zabaltzea. Honek gazteen aisialdia euskalduntzeko aukera emango duelakoan eta aisialdia euskaldunduz gero aurrera begira euren bizitza euskaraz bizitzeko pausoak ematea ahalbidetuko duelakoan.

7) Eranskinak

7.1. Galdetegiak galderaz galdera

1. Kontaidazu eusLiderrak saioek zer eman zizuten, sentipenak, ikasitakoa...			
2016-2017	Portu. %1-20	Mutil	<i>Ba... osea asko gustatu zitzaidan jakitea euskara ez dela hizkuntza hain txikia munduan zehar, nik pentsatzen nuen hemen euskal herritik</i>
		Nesk.	<i>hitz egiten zela baina adibidez amerikan eta leku haietan ez zela ez zen ezer hitz egiten eta konturatu naiz baietz</i>
		L.H.	
		Gazt.	
		Nesk.	<i>Ba... hirugarren dbh-n Gorkak eta beste neska batek eman zizkiguten</i>
		L.H.	<i>klaseak eta esperientzia polita izan zen eta asko ikasi genuen euskerari</i>
		Eus	<i>buruz egia esanda eske ez dakit</i> -Gustura aritu zinen? <i>Bai gustora baina laugarren mailan ya klaseak emotean ba gertatzen dena da ez dela hain guk nahi dugun bezain ona izaten eta geratu zen... ni geratu zen ni egon nitzen ordezeko moduan ba ezin nuelako ba ordutegiak zirela eta ba klaseak emon baina egon nitzen ordezeko ematen baten ea ikusi nuen ba klasean arabera ere bai ez dela hain ona irakaskuntza ematen diogun erabilpena</i>
		Email	<i>Emm.. saioetan oso gustora sentitu nintzen eta euskeraren</i>
		e	<i>inportantzia eta zer nolako erabilera duen mundu osoan zehar eta ere</i>
		Nesk.	<i>euskal herrian zenbat hitzun dauden eta... gustorago sentitu nintzen</i>
		L.H.	<i>euskeraz gehiago hitz egiten hasi nintzelako...</i>
		Eus.	

6 Aldagai horiek jasotzen zituen mutil bat elkarrizketatu nahi baina neska elkarrizketatu dudanetan horrela adierazidut.

	Igorre %21 - 40	Mutil.	<i>Aber berez ba...e... eusLiderrak kontue ba.. azalduoskuen ba.. talde txiki batzuk egingo genituela ba lagunduteko euskeran inguruen</i>
		L.H.	<i>institutoan gauzak egiten eta ba... ni apuntau nintzen ba.. ze euskara nitzako da oso inportantea eta hemekoa ta orduen ba... gustau izen jatan zeozer itea, hola gauza txikerrak eta bueno ba apuntau nintzen eta ... ba hasi ginen lelengo ba pentzetan zer in edo talde txikiak iten ta holan ta... gero etorri ziren ya kanpotik azalpenak emoten eta ba ondo egon zan.</i>
		Eus	<i>-Gustora aritu zinen? Bai bai, bastante gustora</i>
		Nesk.	<i>mmm konfiantza gehiago izatea nigan holan euskaraz iteko, zabaltzea</i>
		L.H.	<i>hizkuntza eta holako gauzak.</i>
		Gazt.	<i>-Horrekin geratuko zinateke? Bai</i>
		Email e.	<i>Ba euskara erabilten dala guk pentsaten dogun baino geau ta euskarari buruz gauza gehio ikasi doguz eta... ba beste...</i>
		Nesk.	<i>mailatakoagaz edo egin dogu geau berba eta egon da bebai gure</i>
		L.H.	<i>artean be bai konfiantza edo geau.</i>
		Eus	<i>-Eta horrek pertsonalki zerbait ekarri dizu? Ez dakit... Ba... bai eztaiz... -Zer edo? Beno zerbait positiboa den edo? Bai zerbait positiboa bai.</i>
U R R I	Portu. %1- 20	Mutil a	<i>Ba... e... euskara hitz egiteko ba guztiok emm... parte hartu behar dugula eta... pues hori</i>
		Nesk.	<i>-Gustora aritu zinen?</i>
		L.H.	<i>Bai</i>
		Eus	
		Nesk.	<i>Ze euskera... nik pentsatzen nuen ze hizkuntza ez zen asko hitz egiten munduan edo baino nik pentsatzen nuen baino askoz gehiago hitz egiten zen eta animatu dit gehiago hitz egiten eta.</i>
		L.H.	<i>-Eta gustora aritu zinen?</i>
		Gazt	<i>Bai</i>

A	Gerni ka % 21 – 40	Mutil.	<i>Ba... ez dakit... e...ba...e...e... ez dakit....ondo pasatu naben nire</i>
		L.H.	<i>lagunekin egon nintzen ta ikasi in gendun.</i>
		Gazt.	<i>-Zer ikasi zenuen adibidez? Ba..en plan torneo bat prestatu genuen futbolekoa ta beste kideek altxorraren bila. -Interesgarria izan zen orduan? Bai -Eta aurrekoa klasean aurkezten egon zirenekoa eta? Hobea.</i>
		Nesk.	<i>Azken finien erakustetzie ia zer... zelakue dan euskerie zer pasatzen</i>
		L.H.	<i>dan... da hori...</i>
		Eus	<i>-eta gustora aritu zinen? Bai azken finien... osea etxien holan iten dot, lehenengo hizkuntza erakutsioztiena hau izen da orduen ba... ez da holan eee inglesa ikestie lez... osea ez da ezebez barrixe..</i>
2 0 1 8	Langr. %1- 20	Mutil.	<i>Nire ustez nahiko ondo egon dira... e... dibertigarriak izan dira eta ...</i>
		L.H.	<i>ikasi dugu...gauzak ikasi ditugu</i>
		Gazt.	<i>-Adibidez? Pues eee... euskara pues...garrantzitsua dela.</i>
		Nesk.	<i>eusLiderreko saioek esan ziguten euskera nondik zetorren lehenengo</i>
		L.H.	<i>gauza eta gero ba zer garrantzitsua zen ba e hizkuntzak jakitea eta</i>
		Eus	<i>batez ere euskera zabaltzea.</i>
		Nesk.	<i>ikas... bueno ...ikasi genuen nire ustez euskera....beste hizkuntza</i>
		L.H.	<i>baten garrantzi berdina duela ...eta pues....euskaraz hitz egiten ez</i>
		Gazt.	<i>badugu edo ez dugu bultzatzen....e...pues...galduko da Gustora aritu zinen saioetan? Bai bai oso</i>
	Berriz %21- 40	Mutil.	<i>Ondo, ba ikasi nuen ba... euskera dala hizkuntza garrantzitsu bat</i>
		L.H.	<i>horrela ba...ee...ba... hori que... eh.... dala garrantzitsua ta orduen</i>
		Eus.	<i>jakiteko ba guk zelan dagon euskera mundu mailan kokatuta.</i>

		<p>Nesk. <i>Gustora baina batzuk izan ziren osea.. como... azalpen gehiegi eta</i></p> <p>L.H. <i>holan eta igual... bideo gehiagokin eta holan... ikusten genituenean</i></p> <p>Gazt. <i>bideoak saioa horietan pasatu genuen hobeto.</i></p> <p><i>Ba...osea ikasi genuen ba adibidez hizkuntzak garrantzitsuak direla eta ez direzela galdu biher ta...gero eh...ba... osea arazo batzuk dauzela e...hizkuntzegaz ta holan ta gero ba... lehenengo azaltzen zuten ta gero ikusten genituen bideo batzuk eta bideokin hobeto ulertzen zan ta holan.</i></p>
--	--	---

2. Gogoan duzu egin zenuten ekintza soziala? Zer erakutsi zizun horrek?			
2016-2017	Portu. %1-20	Mutil.	<i>Bai e... e... nola ginkana bat prestatu genuen euskal kulturarena.</i>
		Nesk.	<i>Eske nire ustez... ba ikasleak ez zuten parte hartu ez zuten serio hartzen...</i>
		L.H.	<i>hartzen...</i>
		Gazt.	<i>Euskal kultura ikasi nuen ze nola erlazioa zuen horrekin ba euskal kultura</i>
		Nesk.	<i>E bai.. nire taldeak egin zuena izan zen abesti bat eta abesti horrekin</i>
		L.H.	<i>ba bideo klip bat</i>
		Eus	<i>Ba... e... euskaraz hitz egitea ba taldean ba... horri garrantzia eman genion eta egia esanda ondo atera zen ideia printzipala zelako ba euskaraz aritzea ekintza egiten eta ondo atera zen eta gero bebai ba abestia egiterako orduan ba nahiko ondo atera zen eta...</i>
		Emaille	<i>E.. bai prestatu genuen e... bost pertsonen artean eta e... gure kurtsoko klaseetan zehar joan ginen gin...bueno kultura test</i>
		Nesk.L	<i>kultura bat eginez euskal kultura eta klasetan zehar joan ginen</i>
		.H.	<i>-Zer erakutsi zizun horrek?</i>
		Eus.	<i>E ba.. euskerazko ekintza bat guztion artean egiten eta... kulturari buruz ere ikasi genuen euskal kulturari buruz</i>

	Igorre %21 - 40	Mutil. L.H. Eus	<i>Ba nik gehienbat ba egon nintzen ba taldeen artean ba... igual ba talde bateri esaten zer in behar zauen ba apur bet zuzentzen ba zuzentzen ekintza hori.</i> -Eta zer erakutsi zizun ekintza horrek? <i>Ba hein baten ba danok in ezkeren holan e esfortzu txiki bet euskeran inguruen ba errezagoa dala.</i>
		Nesk. L.H. Gazt.	<i>Bai egon ginen liburutegien holan e aurkezpen bat entzuten ee hizkuntzei buruz, euskera ez dala hizkuntza txikie ertaina dela eta hori iruditu zitzaidan holan interesgarria.</i>
		Emaille Nesk. L.H. Eus	<i>Ze...</i> - Ekintza bat edo egin zenuten gero, saioak amaituta <i>Eee...</i> - Taldetan <i>In genuzen kartelak eta banatako institutotik ba sustatuteko geau euskera edo ekintza batzuekin</i> <i>Eta gero klaseka be bai jua ginen azalduten ba euskeraren gauzek ba..ta ondo</i> -Oso ondo. Eta horrek zer erakutsi zizun? Zer ikasi zenuen horrekin? <i>Ba... euskerak bebai eztaiz ba</i> -Bururatzen zaizuna... <i>Ba eztaiz, saio batzutura ez nintzen jua eta eztaiz.</i>
2017	Portu. %1-20	Mutila Nesk. L.H. Eus	<i>Orain egiten ari gara. Ba gehiago hitz egiten eta besteak animatzen.</i>
		Nesk. L.H. Gazt	<i>Prestatzen ari gara.</i> <i>Ze... ni euskeraz hitz egin nahi dudanez ba beste batzuei animatu euskeraz hitz egiten.</i>
	Gernika %21 -	Mutil. L.H. Gazt.	<i>Ba... ikasi nabena izan zen... ba... ez dakit... ikastie tornuek iten eta..</i>
U R R I A			

	40	Nesk. L.H. Eus	<i>Ee...ba...euskerien egune ospatu gendun, en plan euskerazko abestixek eta jarri ezkiezen eta holan... da bueno...neri ez doza erakutsi ezer ze azken finien egunero iten doztien...egunero iten doten hizkuntza bat da aurrera botatie baino jendiek ez do itten edo iten badau gero ta gitxiau iten dau ba eurek be konturatzeko dala baia... azken finien ez badotzien ardure hau iten be ez doztie ardurauko orduen...</i>
2018	Lang r. %1-20	Mutil. L.H. Gazt.	<i>Ez genuen egin.</i>
		Nesk. L.H. Eus	<i>Ez genuen ezer gehiago egin. Gero igual klasean komentatu baina... ezer gehiago.</i>
		Nesk. L.H. Gazt.	<i>E....ez genuen ezer egin...</i>
z %21-40	Berri Mutil. L.H. Eus.	Mutil. L.H. Eus.	<i>Ez dugu egin, orain ari gara pentsatzen.</i> -Eta zer pentsatu duzue egitea? <i>Orain ari gara pentsatzen... pintxo lehiaketa.</i>
		Nesk. L.H. Gazt.	<i>Tortila patata txapelketa egingo dugu</i>
3. eusLiderrak saioak eta gero, euskararen erabilera bultzatzen duen lagunen baten rola edo presentzia indartsuago agertzen da zure inguruan?			
2016-2	Portu. %1-20	Mutil. Nesk. L.H. Gazt.	<i>Aurten nire partez euskara gehiago erabili dut eta lagunen artean eta hori adibidez pasaden urtean eske ez nuen euskaraz hitz egiten ia bakarrik irakasleekin eta batzuetan...</i> -Eta zure inguruan klasekideek? <i>m... bai... bueno nire berdina bamos... aurten bai gehiago erabili dugu baina eske pasaden urtean gaizki ezer ezer...</i>

0 1 7		Nesk.	<i>Ba... euskara bultzatzen nire lagunen artean... egia esanda ez</i>
		L.H.	<i>baina nik adibidez eusliderrak ta gero e...e... aurten</i>
		Eus	<i>andereñoak esan digu e... proiektu bat egiteko euskarabentura eta parte hartu nuen eta hartu naute eta osea izan da como... ez dakit</i> -Balio izan dizula bidea egiteko? <i>Bai hori da</i>
Igorre %21 - 40		Email	<i>e...bueno ez asko baina bai batzuetan e... klasean.. e.. euskeraz hitz egiten dugu baina ez dakit.. gure artean e.. txantxa bueno txantxa ez</i>
		Nesk.	<i>baina batzuetan aldiak ditugu adibidez egun osoan zehar baina gero</i>
		L-H.	<i>beste egunean ez dugu euskeraz hitz egiten</i>
2 0 1 7	Portu. %1- 20	Mutil.	<i>Keba, gustauko jatan baina ez da holango... ez ezta egon.</i>
		L.H.	
		Eus	
U R		Nesk.	<i>Bai, e adibidez e galderak ditugunean holan klaseri buruz, lehen galdeten ginun batzutan euskeraz bestetan gaztelaniaz, ta</i>
		L.H.	<i>orain usteot direzela gehienetan euskeraz.</i>
		Gazt.	<i>-Eta zuen artean ere badago batenbat beti dabilena euskaraz, nahiz eta norbaitek gaztelaniaz erantzun beti euskaraz erantzuten duena? Batzutan batzuk bai daude.</i>
2 0 1 7	Portu. %1- 20	Mutil.	<i>Ez asko.</i>
		L.H.	<i>-Zerbait bai? Nola?</i>
		Eus.	<i>Bai ba.. adibidez klasean zerbait eskatzeko ba agian euskeraz hitz egiten dugu klasekoen artean</i>
U R		Nesk.	<i>Ez</i>
		L.H.	
		Gazt	

R I A	Gerni ka % 21 – 40	Mutil.	<i>A bai bai</i>
		L.H.	<i>-Nola nabaritu duzu presentzia hori?</i>
		Gazt.	<i>Ba lehen nire lagunek erdera gehixau iten zabien.</i>
		Nesk.	<i>Ez ez holan ez... baie bai ikusiot holan adibidez..nik e klasien</i>
		L.H.	<i>euskeraz iteot ezta? Ba adibidez nik baa adibidez etxien euskeraz iten</i>
		Eus	<i>dabie dana adibidez hemen badaoz bi ... ba adibidez ni beragaz aserretu nintzen da hasi nintzen en plan aber erderaz da... nik eziztut ein erderaz konbertsasiñoa segidu haserretuta en plan arin orduen nik euskeraz iten dot etxien haserretzen naizenien bebai da orduen ezin izan naben esan notzen nik euskeraz ingotzut da azken finien nik euskeraz iterakoan eurek euskeraz erantzuteztien ba ze ingogu da ezdakizer da ordun hori bai ikusiot bestela... ez dot ikusi...</i>
2 0 1 8	Langr. %1- 20	Mutil.	<i>Klasean bai... pertsona batzuk bai... besteak ez...</i>
		L.H.	
		Gazt.	
		Nesk.	<i>ez</i>
		L.H.	
		Eus	
		Nesk.	<i>Bai...ni fijatu naiz eta bi edo hiru, hiru edo lau pertsona gehiago hitz egiten dute klasean euskeraz.</i>
		L.H.	
		Gazt.	
	Berriz %21- 40	Mutil.	<i>Batzuetan bai, baina beti ez.</i>
		L.H.	
		Eus.	
		Nesk.	<i>Ez berdin...</i>
		L.H.	
		Gazt.	

4. eusLiderrak saioak eta gero, euskararen erabilera bultzatu duzu?			
2016-2017	Portu. %1-20	Mutil.	<i>Bai nik eta eusLider tailerrekoak eta nola handiagoak gara eta</i>
		Nesk.	<i>kontzientziak esaten digu euskara bultzatzea osea behar dugula</i>
		L.H.	<i>euskara bultzatzea</i>
		Gazt.	
		Nesk.	<i>Ba batzuetan.. nik uste dut baietz baina ez naiz ... irakasle rol</i>
		L.H.	<i>moduan ez ... hau da ikasle moduan txantxak egiten edo</i>
		Eus	<i>-Eta beste norbaitek egiten du hori?</i>
